

# GUaiXE.eus



Zuhaitz  
eguna  
Arakilen



Sakanerria >> 6

Sakanako eskola txikiek Dumas  
proiektua aurkeztu dute,  
ikaslea ikaskuntzaren erdian  
jartzen duena



Ezkaatza >> 3

## Feminismoa, eguneroko lana



>> 5

LABek lan eskubideen  
alde aktibatzer  
deitu du

>> 7

Epaitegiak ikurrina  
jartzeagatik Lakuntza  
eta Etxarri zigortu ditu

>> 6

Olatzagutian  
Baltistanen  
aldeko  
eguna

>> 16



Aspergerren  
aurrean kemenez  
beteriko  
gaitasuna >> 9



Udal maparen  
berrantolaketaz  
bilera  
Irurtzunen >> 6



Gozamenez  
ospakizunerako  
gazteak  
behar dira >> 9



Kaotikoren  
bederatzigarren  
diskoa  
kalean >> 15



Lilasterketa:  
emakumeendako  
kirol  
hitzordua >> 11



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxo: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



**Olaia**  
ZORIONAK Olaia!!!!  
Gozosa!!!!!!!. Izugarri  
maite zaitugu. Izei eta  
gurasaok.



**Irati**  
ZORIONAK Irati!  
Zure familiakoan  
partez, muxu bat eta  
ongi pasa!



**Ane**  
ZORIONAK printzesa! 3 urte  
betetzen dituzu! Ze azkar  
pasa den denbora zu eta  
zure ahizpa ondoan zaituzte-  
tegula. Muxu pila zure ai-  
ton-amonen partez!



**Ane**  
ZORIONAK maitia!! 3 urte  
betetzen dituzu bihar, bai  
bihar, azkenik iritsi da zuk  
hainbeste itxaron duzun  
eguna jejeje. Muxu asko Mi-  
ren, amatxo eta aitaixoren  
partez!!



**Adei**  
Adei, ZORIONAK  
amatxo, aitaixo ta fa-  
meli denan partetik. Se-  
gi guai artie bezein alai  
ta goxo.



**Adei**  
Adeitxo, Lizerrako txapel-  
dune, 3 urte daunekos. Zo-  
rionak txiribito, txorixo  
plamplona. Karruat muxu  
Aitor ta Haizean partetik.

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideak:

3,50€

## marsuak

# 11-17

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Myriam Palomar eta Roman Garcia Lampaya.** Martxoaren 11n, ostiralean, 20:00etan Arbizuko kanpineko Amari yoga magikoan.

**Tibetar ontziak.** Martxoaren 12an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko kaputxinoen komentuan.

**Brigada inproductiva eta Eratu.** Martxoaren 12an, larunbatean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

**Aurora Beltran .** Martxoaren 13an, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean.

### Antzerkia

**Desmedidas.** Martxoaren 12an, larunbatean, 16:30etan Irurtzungo kultur etxean. **Emprededoras** taldea.

**Guernica 1913.** Martxoaren 12an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Banarte antzerki** taldea.

**Potted.** Martxoaren 13an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **La Trócola.**

### Proiektzioak

**ITB (inauteriak) eta berdintasunari buruzko lanak.** Martxoaren 11n, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan.

**Urbasaz gozatzu II.** Martxoaren 12an, larunbatean, 16:30ean Urbasako Bioitza kanpinean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Zinema

**Rams, el valle de los carneros.** Martxoaren 11n, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 13an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Sufragistas.** Martxoaren 11n, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 13an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Spotlight.** Martxoaren 17an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Mendi irteerak

**Irurtzun-Iruña, Plazaolatik.** Martxoaren 13an, igandean, 8:30ean Irurtzundik. **Iratxo mendi** taldea.

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Dulantzi-Altsasu.** Martxoaren 12an, larunbatean, 10:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. 74 km. **Zikloturista** taldea.

**San Felices.** Martxoaren 13an, domekan, 7:30ean Barranka txirindulari taldearen mendi bizikleta taldearen Altsasuko bajeratik. 49 km.

### Erakusketak

**Zero grabitatea.** Martxoaren 17ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**TTIP: La Otan económica.** Martxoaren 11n, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxean. **Askapena.**

**Kafe hitzaldia.** Martxoaren 12an, larunbatean, 16:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Desmeninas** **Emprededoras** taldea.

**Haurren negarrari arreta eskaini.** Martxoaren 16an, asteazkenean, 17:00etan Arbizuko Kattuka haur

eskolan. **Hizlaria: Alfredo Hoyuelos.**

### Literatura

**Iparraldeko neska.** Martxoaren 11n, ostiralean, 18:00etan Arbizuko liburategian. **Castillo Suarez.**

**Assata Shakur. Autobiografia.** Martxoaren 16an, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Maria Castejon Elorzarekin** tertulia.

### Pintura

**Zuzenean margotzen.** Martxoaren 13an, domekan, 18:00etan Altsasuko Haritza tabernan. **Itziar Nazabal.**

### Tailerrak

**Gure barruko altxorak.** Martxoaren 12an eta 13an, larunbatean eta domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Bestelakoak

**Zuhaitzaren eguna.** Martxoaren 12an, larunbatean, 9:00etatik Egiarretako Itxasperi ermitan. **Arakilgo Udala.**

**Olazti-Baltistan, elkartasun eguna.** Martxoaren 12an, larunbatean, 13:00etatik aurrera Olatzagutian. Maisuenea gaztetxea.

**Testu eta ikus-entzunezkoen kritika taldea.** Martxoaren 14an, astelehenean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxeko goiko gelan. **Taldea** **sortzeko bilera.**



Aurora Beltran, Irurtzunen etzi.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 11n, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**NATO-ri ez! Eguna.** Martxoaren 12an, larunbatean, 19:30etik aurrera Altsasuko udaletxe aurrean. **Askapena.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 13an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero  
**SAIOA**  
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Eskola txikien Dumas proiektua
- Baltistanekin elkartasunez, Olaztin
- Xabier Aldaz, Kaotikoren disko berriaz

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE



## SAKANA

## Dumas: bat guztiendako eta guztiak batendako



El Martinet eskolari buruzko jardunaldira Euskal Herri guztitik etorri ziren.

**ikaslea ikaskuntza prozesuaren erdian jartzen duen proiektua da Dumas, Sakanako Eskola Txikiak landu dutena eta heldu den ikasturteko aurrera Arbizuko eskolan martxan jarri nahi dena**

Alfredo Hoyuelosek, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle ihabardarrak, eta Marc Bonasek Ripolleteko (Bartzelona) El Martinet eskola publikoari buruzko dokumentala egin zuten: *Berdea, Gozoa, Jazza, El Martineti buruzko hiru begirada*. Sakanan estreinakoz joan den urteko maiatzaren 13an proiektatu zen, Altsasun. "Ondoren gogo bat eta aukera bat sortu zen. Hoyuelos eta gu elkarri begira jarri ginen. Sakanan halako proiektu bat martxan jartzea proposatu zigun".

Orduetik Sakanako ikastetxeetako irakasle talde bat elkartu da eta, lantaldean, berrikuntza pedagogikoko proiektu bat idatzi dute. Proiektua lantzeko mintegia antolatu dute. Mintegian gaiaren inguruko hainbat dokumentu landu dituzte (liburuak, dokumentalak...) Hezkuntza Departamentuko berrikuntza proiektuetara aurkeztuko dute laister.

Sakanako Eskola Txikiak (Uhartar Arakil, Arbizu, Iturmenendi, Urdiain eta Olatzagutia) antolatuta *Gure ametsak eskola bihurtuz* jardunaldiak izan ziren Etxarri Aranatzaren hilaren 3an. Ripolleteko ikastetxeari buruzko

dokumentala eman zen. Hoyuelos eta eskolako bi irakasle izan ziren jardunaldietan.

## Dumas

Lierni Galarragak, Sakanako Eskola Txikien koordinatzaileak azaldu digunez, Alexandre Dumas idazlearen abizena hartu dute proiektua izendatzeko. Hark idatzitako D'Artagnan nobelako musketariak zerabilten leloa bere egitea proposatu zien Hoyuelosek: guztiak batendako eta bat guztiendako. "Nahiz eta proiektua eskola txiki batean jarrita egon, beste eskolek sarea osatuko dute proiektu hori janzteko eta aberasteko".

Egitasmoetik gertuen zegoen eskola Arbizukoa zela ikusi zuten eta han abiatuko da Dumas egitasmoa. "Bestalde, eskola, pixkanaka hazten ari da. Gero eta matrikula gehiago dauka. Irakasleen prestakuntza honetatik guztitik oso gertu dago. Hoyuelosekin aurretik elkartu izan dira. Tonucci prestakuntza saioan egondakoa dira".

Hezkuntza ulertzeko modu honi buruzko bi dekalogo idatzi dituzte. Bata Haur Hezkuntzako eta bestea Lehen Hezkuntzako. Hau izanen da irakaslearen lanerako iparrorratza. "Dumas proiektua pixkanaka sortu nahi dugu, heldu den ikasturteko aurrera. El Martineteko esperientzia han ongi

dago. Baina guk gurea, propioa sortu behar dugu. Gainera, dagoeneko sortuta dugunari errespetu handia diogu", azaldu digu Galarragak. Pauso txikiak emanez, "erreferentzia eta abiapuntua ikaslea" izanen da: "ez egotea zigorrik; ez etxeko lanik; ez azterketarik; ikaslearen berezko proposamene-tatik abiatzea ikasi nahi duena eta ikastetxea ikasteko giroetan antolatua egotea. Horretarako, espazioak, materialak, eta estetika kon-

tu haundiz zaintzen dira. Proposamenak irekiak dira haurren autonomia, sormena, iniziatiba eta ikasle bakoitzaren barne proiektua bideratzeko.

Galarragaren iritziz, "gaitasunetan heztea, bizitzarako ikastea da azkenean. Ez da azterketa bat gaingintzeko, baizik eta bizitzarako ikastea. Afektibitatea, elkarren arteko erlazioak zaintzea. Eskoletan beldurrezko erlaziorik ez egotea..." Bere koordinatzaile lan-

## Ripolleteko bisita

El Martinet eskola bertatik bertara ezagutzeko bisita antolatu dute apirilaren 2rako. Sakanako herrieskolak@gmail.com e-posta helbidean eman behar da izena. 30 euroko kostua du.

postutik Galarragak hezkuntzan bide berriak bilatzea kezka orokorra dela ikusten du.




**GRADUKO ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**GOIERRI · MARTXOAK 12**  
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

**ARRASATE · APIRILAK 21**  
OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**BILBAO · MARTXOAK 12**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**BIDASOA · APIRILAK 16**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**ESKORITZA · MARTXOAK 12**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**ARETXABAETA · MARTXOAK 12**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA · MARTXOAK 19**  
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

**ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!**

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

**MARTXEL GARAI**  
myGADE, 2. maila

#erronkarakoprest

## Testuingurua

Sakanako Eskola Txikiak 2014-2015 ikasturtean lau urterako plan estrategikoa egin zuten. Hezkuntza komunitate guztia kontsultatu eta ziztuzten beharrak aztertu ondoren lau helburu estrategiko zehaztu zituzten: kalitate pedagogikoa, kalitatea kudeaketan, eskualdean txertatutako irakaskuntza eta matrikulazioa. Galarragak dioenez, "kalitate pedagogikoaren arloan, leku askotan, hezkuntzaren paradigmen aldaketa eta metodologia berrien kezka dago". Horregatik, eskola txikietan prestakuntza saio asko egi-

ten ari direla aitortu du, askotan ponenteak ikastetxeetako irakasleak izan dira. Prestakuntza saioak zerrendatu ditu: pedagogia sistemikoa, metodologia eta pedagogia berreraikitzen, bertsolaritza eta emozioak, robotika, Montessori (orainari diralantzen)... Eskualdearekin txertatuagoa den hezkuntza eta Sakanako curriculumarekin lotuta ibarreko kultur eta ondarearen ezagutza irakasleen artean zabaltzeko saioak egin zituzten. "Bide batean goaz. Lan egiteko modu batean sinesten dugu: ikaslea irakaskuntzan zentroa izan behar duela uste dugu. Bera protagonista izan behar du".





# Hori ez da egia

Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Gezurtero, *embustero* erdaraz, engainatzen aditua. Egiaren zirrikituak ezagutu eta argi nahiz itzalak aurreikusten azkarrenak baino ezin mantendu itxura. Herrena baino lehen antzematen gezurtia, hala dio behintzat eserak.

Gezurrien artean traidorea dugu lehena, La Pollak esaten

zuen moduan lagun batek baino ezin zaitu traizionatu. Haren gezurrak min handiena sortzen du, konfiantza apurtu eta eraikitako erlazioak eraisten baititu bat batean.

Gezurri bihozberak, ez omen du gezurra intentzio maltzurrekin esaten. Egoera hobetu eta gauzak gehiegi ez korapila-

tzeko esaten du. Gezur horren atzean, ordea, bakoitza bere buruarekin hobeto sentitzeko nahia dago. Arazoei ihes egiteko nahia.

Badira ere gezurri konpultsibotzat ditugunak. Gezurrean beren errealitate gordinari aukera bat bilatzen diotenak. Mundu paraleloak sortu eta inguru

osoari iruzur egiten diotenak. Haiek sortutako kalteak ezin dira aurreikusi eta kolpean datoz, baina hark ditu hanka motzenak.

Propaganda eta publizitatea, gezur ekonomikoaren oinarriak. Herritarrengan gabeziak eta beldurak sortuz etekinak ateratzen dituenak. Marketin eta politikan

aritzen diren gezurteroak.

Egoismo hutsaren isla, besteen printzipioak hankaz gora jarri, kontzientziak nahastu eta ziurtasun faltatik etekina ateratzeko intentzioa. Harrapatzen ditugunean, ordea, lotsa dator; gezurtia-rena ez bada ere, bai behintzat ingurukoena. Egia ez dena, gezurra omen.

## barrutik kanpora

# Amaierarik ez duen borroka

Aste honetan aurkeztu da "Nafarroako Hondakin Kudeaketarako Plan Integrala 2025" dokumentuaren zirriborroa. Ez da ahaztu behar aurreko hondakin plana bertan behera utzi zutela epaitegiek, Sakanako Mankomunitateak eta Sustrai bere kontra ezarritako helegitea ontzat hartu ondoren. Plan hark Tafallaldean errauskailu bat eraikitzea aurreikusten zuen, eta horrek eskualde hartako eragile ekonomiko eta sozialen aurkakotasun argia piz-

tu zuen. Honek, aldi berean, errausketa hondakinak desagerarazteko metodarik egokiena bezala aurkezten zuten alderdi politikoen iritzia aldatzea eta proiektua bazterteaz ekarri zuen. Plataforman gogoan dauzkagu oraindik antolatu ziren jardunaldi parte-hartzaileak, eta nola bertan ingurumen teknikarietara errausketazale sutsuak-hondakinak erraustearen onura ukazinak gorai patzen zituzten.

Eta beldur gara orduan aurrez

aurre izan genituen teknikari haiek berberak direla orain ere paper garrantzitsua jokatzen ari direnak gure Komunitateko hondakin kudeaketaren etorkizuna ezbaian dagoen une kritikoa, eta are gehiago, berriz ere "energia balorizazioaren" gaian beraien iritzia argi eta garbi ageri dela pentsatzeko arrazoiak ere baditugu.

Zirriborroak, "hondakin enbuki energetikoa balioztatu daiteke" aipatu ondoren, bi agertoki

aurkeztu ditu: Nafarroatik kanpo erretzeko hondakin etatik eratorritako erregaiak ekoiztea, edo energia balorizazioa ez baimendu eta hondakinak zaborte gira bideratu, horrek hondakin kudeaketaren hierarkian ekarriko lukeen kalte azpimarratuz.

Gezurra dirudi gaur egun, oraindik, beste garai batzuetako planteamendu zaharkituekin borrokan aritu beharra. Hondakinak erraustea proposatzeak, aukera hori aintzat hartzen due-

naren burugabekeria agerian uzten du. Eta hondakinak erraustera kanpora bidaltzeak, berriz, batere bihotzik ez duela.



olaztinerrausketarizek.blogspot.com.es

## hara zer dien

# Zenbat egunetan uzten dute drogek arrastoa (zantzua) gure gorputzean?

Jakin badakigu, drogak kontsumitzean, hauek gure organismoan efektu batzuk eragiten dituztela. Efektu hauek iraupen bat dute, aldaera desberdinen arabera efektu hauek iraunkorragoak izan daitezkeelarik. Efektu hauek kontsumitu den sustantziaren arabera, kantitatearen arabera, nahasketa eman den arabera... eta kontsumitu duen pertsonaren ezaugarrien eta egoeraren arabera desberdinak izango dira.

Efektuekin oso lotua dagoen beste aspektu bat ere badago, eta gainera normalean kontuan hartzen ez dugun aspektua da hau: drogen efektuak pasatzen diren arren, sustantziak gure gorputzean erregistratuak geratzen direla; sinadura kimikoa uzten dute gure gorputzean.

Droga guztiak ez dute denbora bera irauten gure organismoan, drugs.ie-ren arabera, arrasto gehien uzten duen droga haxixa

da, bai gernuan, zein ilean, zein odolean.

Drogen detekzioarako froga erabilienak odol froga eta gernu froga dira. Hauek kontsumitutako astearren barruan egiten badira, oso fidagarritasun altua dute; baina, beste alde batetik iraunkorragoak dira adats frogak.

Haxixak gure gorputzean uzten duen sinadura kimikoa, beste drogak baino denbora luzeagoan irauten du: 90 egun irauten ditu ilean,

hilabete bat kostatzen zaio gernutik desagertzea eta ia hamabostaldi bat kostatzen zaio odoletik desagertzea (336 ordu, hain zuzen).

Ondoren azalduko ditugu sustantzia, analisi mota eta gure gorputzean irauten duten denboraren inguruko emaitzak:

Odol analisisian: Haxixak 336 ordu, alkoholak eta heroinak 12 ordu eta kokainak 48 ordu.

Gernu analisisian: Haxixak 30 egun irauten du, kokainak 4 egun,

alkoholak 5 egun eta metaanfemaminak 6 egun.

Adats analisisian (ilean): Analsi mota honetan denbora luzeagoan antzeman daitezke kontsumoak. Alkoholak, kokaina, barbiturikoak eta beste gainontzeko sustantziak ilearen folikulan kontsumitu ondorengo hiru hilabetetan antzeman daitezke.

**Sakanako Prebentzio Programak**

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaxe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

**ZUZENTZAILEA:** Garazi Garzia Mauleon

**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995

**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK** 

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

**BIGARREN XABIERRALDIA:** Bihar eginen da Xabierko gaztelurako bigarren errromesaldia. Zangozatik gurutzebidea 15:00etan abiatuko da. Gaztelurako bidea oinez egin

ondoren, haren aurrean 17:00etan, meza izanen da. Grazia bederatzizurrenaren barruan sakandarrak herenegun izan ziren.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Sakana feminista eta askea aldarrikatu dute

Emakumeen Egunerako deialdi bateratua egin zuen Sakanako mugimendu feministak. Altsasun 600k gora pertsona elkartu ziren, kaleak eta plazak "salaketa, aldarrikapen, abesti eta dantzekin betez". Izan ere, manifestazioaren ibilbidean zehar performancea, euskal dantzak, bertsoak eta su inguruko dantzak izan ziren. Bestalde, ibilbidean zehar hainbat lelo oihukatu zituzten: matxismoa terrorismoa da; kaleak, gauak, gureak dira; gora borroka feminista edo patriarkatua, kapitala, alianza kriminala.

Sakanako mugimendu feministako eledunek lehengo eta behin gogorarazi zuten Emakumeen eguna "data puntual bat besterik ez dela eta gure borroka eguneroko lana da". Aldi berean, jakinarazi zuten gaurko deialdirako Sakanako mugimendu feministak egingako aliantza "etorkizunera begira irudikatzen dugun proiektu feminista bat da".

Emakumeendako "bakerik" ez dagoela salatu dute, "ez behintzat

emakumeon kontrako indarkeria normalizatzen duen bake egoera neutralizatu honetan; zeinetan emakumeon kontrako gutxiespenak, irainak, gustukoak ez diren txisteak, prekaritate eta muturreko pobrezia egoerak, kolpeak, erailketa... eguneroko errealitate diren". Altsasun izandako indarkeria matxistako kasua gogora ekarri zuten. "Mugimendu feministak irtotik salatzen du indarkeria matxista eta ozen adierazten dugu ez dugula inolako justifikaziorik onartuko ezta sinistuko ere. Argi daukagu, kuleroko jaitza ere ezetz esan dezakegu".

### Errora

Feministek "arazoaren sustraira" joateko ordua zela adierazi zuten. "Irreal den berdintasun instituzionala eta genero desberdintasuna egiturazkoa" dela onartzeko eskatu zuten. "Horretarako bota ditzagun sutara edertasun kanonak, publizitate sexista, homofobia, gure ahotsen isilaraztea, emakumeon lan ordu bukae-



Performancea, dantza eta bertsoak izan ziren manifestazioan. Hari buruzko bideoa ikusteko beheko QR kodea ibili.

### Deialdia

**Indarkeria matxistaren kontra eta jendarte eredu berrien alde** Gas-teizen apirilaren 9an eginen den manifestaziora joateko deia egin zuten mugimendu feministak.

zinak, boterea eskuratzeko ezintasun politikoa..."

Kurdistanen, Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen eta beste hainbat tokitan eraildako emakumeak gogoan izan zituzten eta "borroka feministak bizirik jarrai dezan nazioarteko elkartasuna beharrezkoa" dela azpimarratu zuten. Bestalde, larunbatean atxilotu zuten Ainara Ladron kidea gogoan izan zuten.



## >> Altsasu

### Aurreikuspen onak Sunsundeguin

Sunsundeguik aurrera egiteko Nafarroako Gobernuak hainbat bide erabiliz 35,2 milioi euro jarri zituen. Horrekin batera, hiru urteren buruan egoera berraztertze konpromisoa hartu zen. Manu Aierdi kontseilariak jakinarazi duenez, Sunsundegui Sodena enpresa publikoarekin harremanetan jarri da. Lantegia modernizatzeko 4,5 milioi euroko inbertsioa aurreikusten da, Sodena erdia ordaindu beharko du. Aurten 411 karrozatze aurreikusitako, 52 milioi euroko fakturazioa. 2015ean 38 izan ziren (276 autobus) eta 2014an 28 (260 autobus). 325 langile ditu. Langileen %60 sakandarrak dira, %20 Nafarroako beste eskualdeetakoak eta %18 EAEkoak.

## >> Irurtzun

### Irudiak, antzerkia, hitza eta musika

**Horrela despedituko da Martxoak 8a dela eta antolatutako egitaraua**

Irurtzongo emakumeen taldeak antolatutako egitaraua asteburuan despedituko da. Gaur, 20:00etan, berdintasunari buruzko film laburrak eta ITBren inauteriei buruzko bideoa ikusteko aukera izanen da, Pikuxarren. Emakumeari Buruzko Jardunaldietako egitaraua Aurora Beltranen kontzertu akustikoak despedituko du, igandean, 19:00etan, kultur etxean.

Bihar, 16:30etan, Emprededoras taldeak *Desmedidas* antzezlanak ekarriko du. Hiru aktorek, moda desfile baten aitzazkiak, "ezinezko edertasunaren (gazte, mehe eta ile-horia)

diskurtso mediatikoa" deseginen dute, "gorputz ideala ez baita existitzen; ameskeria horrek esklabu bihurtzen gaitu eta nortasuna, gure eraiki eta garen moduan onartzeko askatasuna, galaraztendigu". Desfilean hainba emakume estereotipo ikusteko aukera izanen da.

Maitasun erromantikoari dago-kionez, "estereotipoak mantentzen duen kultura sustratu etengabe horri" erreparatuko diote, antzerki estiloarekin, eta satira erabiliz. Ikuskizuna bukatu ondoren, edertasunaren mitoa eta maitasunean hark dituen ondorioak desmitifikatzeko zer egin daitekeen aztertuko dute elkartutako guztiek.

## >> Altsasu

### Emakumeen Egunarekin, gehiago

Martxoaren 8a dela eta antolatutako egitarauak segida du hurrengo egunetan. Bihar eta etzi, 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunek 15 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako tailerra hartuko du. Zoila Berastegi Mariñelarena arbizuarrak *Barruan den altxorren bila* tailerra gidatuko du. Dramatizazioaren bidez, neskek munduaren aurrean duten jarra aztertu eta landuko da; bakoitzak bere burua munduan nola ikusten duen jakiteko.

Domekan, 11:30etan emakumez-



koen lasterketa ez lehiakorra, Lilasterketa, izanen da. Oraindik izena eman ez duenak [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web orriaren edo 948 564823 telefonoaren bidez egin dezake. Edo domekan bertan, 11:00etan, Gure Etxea eraikinean. Emakumeen Eguneko egitaraua literatur solasaldiak despedituko du, asteazkenean, 18:00etan, Iortia kultur gunean. Oraingoan hizpidea Assata Shakur Amerikako Estatu Batuetako iraultzailearen autobiografiak emanen du. Maria Castejon Leorza izanen da saioa gidatzen.

# Bardoak 2016

nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea



laurantzaleak

GUaIXE.EUS

beleixe



**FINALA**  
MARTXOAK 19, LARUNBATA  
Etxarri-Aranazko frontoian, 17:00etan

ATEKABERTS (Leitza)	OBARIO MALDIKOAK (Iruñea)	LARUNGO ANTENAK (Bera)
Ander Fuentes "Itturri"	Saioa Alkaiza	Julen Zelaieta
Joanes Illarregi	Aimar Karrika	Patxi Castillo
Xabat Illarregi	Irati Majuelo	Aitor Elexpuru
Migel Mari Elozegi "Luze"		Jokin Pinatxo

Informazio osoa eta sarrerak

[WWW.BERTSOZALE.EUS](http://WWW.BERTSOZALE.EUS)

## » Arakil

## Zuhaitzaren egunerako aitzurrak prest?



Arakildarrak aurretik ere hartu izan dituzte aitzurrak zuhaitzak landatzeko.

Larunbatean, 9:00etatik, Egietako Itxasperi ermitan

Arakilgo Udalak arakildarrak biharko zuhaitz egunean parte hartzera gonbidatu ditu. Zuhaitz landaketa haurrek eginen badute ere, Udalak helduei joatea ere eskatu die. Itxasperi ermitaren inguruko zelaietan zuhaitzak landatzeaz aparte landareekin egindako hesi bat jarri nahi dute. Landare horiek jartzeko auzolana 9:00etan hasiko da. Gainera, 11:00etan haurrek landatuko dituzten zuhaitzendako zuloak ere egingen dituzte.

## Aitzurra

Parte-hartzaileek lan tresna eraman beharko dute.

Haurrendako hitzordua 10:30ean dago jarria. Itxasperin haiendako propio eskulan tailerra izanen da. Haur bakoitzak zuhaitza landatzearekin batera hura babestuko du. Babes horren adierazle diren txartelak tailerrean egingen dituzte. Lan guztiak despeditu ondoren, denendako otamena izanen da.

## » Lakuntza / Etxarri Aranatz

## Ikurrina, ez eta bai

Lakuntzako eta Etxarriko udalek txupinazoetan ikurrina jartzea ez du egoki ikusi epaile batek. Beste batek Tafallan gauza bera egitea egoki jo du

Herriko festen hasiera iragartzen duen unean, txupinazoan, udal txeko balkoian ikurrina jarri zuten joan zen urteko festetan, bai Lakuntzan bai Etxarri Aranatzan. Estatuaren abokatuak salaketa jarri zuten. Administrazioarekiko auzien Nafarroako 2. epaitegiak ebazti du Sakanako bi udalek "lege iruzurra" egin zutela. Epailearen arabera bi udalek "modu oso zorrotzean" interpretatu zuten Nafarroako Ikurren Legeak aitortzen duen salbuespena. Hau da, udalak herrialde bateko ordezkari gisa gonbidatzen badu, haren jaioterriko bandera jar daiteke. Lakuntzan Tolosako zinegotzi Ibai Iriarte San Vicente egon zen eta Etxarri Aranatzan Marian Beitialarrangoitia parlamentaria.

Astelehenean ezagutu ziren bi epaiak, asteazkenean, berriz, Administrazioarekiko auzien Nafarroako 3. epaitegiak Sakanako enjokabide bera izan zuten Tafallako kasuan ez du "lege iruzurrik" ikusi. Euskadiko bi parlamentari zeudenez, epaileak "kortesia zko keinu" gisa hartu du ikurrinaren presentzia. Sakanako Udalek 15 egun dituzte helegitea aurkezteko, gainera, epaiketa kostuak ordaindu behar dituzte.

## Argudioak

Etxarriko udal ordezkariak ez daude epaiarekin ados. Haien iritziz, "estatuko administrazioak ez du legitimazioarik foru-lege baten urraketa salatzen. Izatekotan Nafarroako Gobernuak izanen luke, baina ez estatuko administrazioak, hain zuzen ere foru-lege bat delako eta hortaz, Nafarroako



Lakuntzako festetako txupinazoa.

eskumena". Bestetik, nabarmendu dute "ikurrina jartzea legearen barruan eman zen eta ez da, inondik inora ere frogatu (ezta froga saiakerarik egin) iruzurrik egon zenik".

Etxarriko alkate Eneka Maizek epaien atzean "bultzada politiko" bat ikusten du. Maizek gogora ekarri du Etxarriko ikurrina 1977 urtetik jarri dela udal txeko balkoian. Alkatearendako epaiak "erakusten du gaur egun defizit demokratiko izugarria dagoela. 1977an gure ikurrak jartzetik izan

genuen; 2016an ez, ordea. Atzera egin dugu espazio sinbolikoetan eta eskubide identitarioen esparruan". Nafarroan egondako aldaketa politikoa gogoak, Maizek gaineratu du: "amorrutari dira jokatzen gure herrietan, batez ere txupinazoan inguruan sortzen diren adierazpen espazioei dago kienez". Herrietako festak hasi aurretik Ikurren Lege berri bat beharrezkoa dela nabarmendu du Maizek. Gobernuak programa akordioan konpromiso hori jasoa dagoela gaztigatu du.

## » Irurtzun

## Udal maparen erreformaz proposamenak jasotzeko bilera



Irurtzunge kultur etxeak aurretik hautetsien bilerak hartu izan ditu.

Sakanako udal eta kontzejuetako hautetsiak Irurtzunge kultur etxean heldu den ostegunean, 17:00etan, egingen den bilerara deituak daude

Nafarroako Gobernuak toki administrazioaren mapa, udal mapa,

berrantolatze asmoa azaldu du. Toki Administrazio Departamentuak bi urte barrurako, 2017rako, nahi du lege proposamena. Gobernuak eta parlamentuak gaia lan-

tzen hasi dira. Baita Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak ere. Federazioko zuzendaritza Nafarroako hautetsi guztiarekin bildu nahi du. Horretarako, eskualdekako zortzi bilera antolatu ditu.

Bilera erronda horretan dago Irurtzungea. Federazioko zuzendariak bilera horietan udaletako eta kontzejuetako hautetsien proposamenak jasota iritziak entzun nahi dituzte. Aurretik hausnarketarako txostena jaso dute guztiak. Federazioko iritziak, "toki administrazioaren erreformaren xedeak izan beharko luke toki-erakundeek beren eskumenak lurralde-, demografia- eta administrazio-esparru egokienetan gauzatzea". Berrantolaketan oinarritzeko gaiak zerrendatu dituzte ere: eskumenak (udalena, kontzejuenak, gobernuarenak, biztanleria mailaren arabera

zerbitzuak...), maparen antolamendua (tipologia, ) eta finantziarioa (erkidegoko tributuak, udal zergak, zorpetzea, diru-laguntzak...). Bilera horietan jasotako iritziekin, federazioak aurreneko txosten bat osatuko du, garagarzarorako. Hura Nafarroako Gobernuari emanen diote, kontuan izan dezan. Foru administrazioak ematen dituen pausuen arabera federazioak urrats berriak eman ditzake.

## Parte hartzea

Berrantolaketan asmoari erantzuteko federazioak 31 udal eta kontzeju osatutako lantaldea eratu du. Zuzendaritza taldea jarduerak eta metodologia zehaztu ditu. Hausnarketarako taldeak eta azpitaldeak ere antolatu ditu. Kontzejuen azpataldean Unanuk 50 eta 100 biztanle arteko toki erakundeak ordezkatzeko ditu.

## » Arakil / Irurtzun

## Kritika taldea sortzeko deia

Testuen eta ikus-entzunezkoen inguruan euskaraz hitz egiteko taldea sortu nahi dute. Interesa dutenek astelehenean, 20:00etan, Irurtzunge kultur etxe goiko gelan dute hitzordua

Arakildar eta irurtzundar euskaldunak irakurri, ikusi eta entzuten duen kritika taldean parte hartzera gonbidatu dituzte. "Edozein hizkuntzatan prentsa, aldizkari eta liburuetan irakurtzen dugunaz; pelikula, dokumental eta antzerkia ikusi eta haien inguruan hizketatzeko elkartuko gara". Taldearen sustatzaileek bi helburu jarri dizkiote ekimenari: "ongi pasatzea eta norberaren iritzia partekatzea". Eta euskaraz. Astelehenerako jarri dute hitzordua eta orduan emanen diote forma egitasmoari. Harremanetarako 618 096 294 telefonora (Pello) hots egin daiteke.

## » Arakil

## Arakil sagardotegira

Arakilgo Udaleko kultura zerbitzuak sagardotegi bazkaria antolatu du martxoaren 19rako. Izenematean heldu den astelehenera arte egonen da zabalik. Udaletxean eta 958 500 101 edo 634 584 226 telefonotan eman daiteke izena. Arakilen erroldatuek 25 euro ordaindu beharko dituzte eta ez daudenak 30. Autobusa bete arteko lekua izanen da. Arakildarrak Irurtzunge Pikuxar euskal txokoko lagunekin batera joanen dira sagardotegira.

Astigarragako Etxeberria sagardotegira martxoaren 19an, larunbatean, 13:00etan abiatuko dira. 14:00etan bazkalteza eseriko dira. Bazkalburu luzearen ondoren, 18:30ean Hernanira joanen dira eta etxerako bidean 2:00etan jarriko dira.

## » Etxarri Aranatz

## Autoak harrapatuta hil da andrea

Auto batek harrapatu zuen andrea hil egin da. Ezbeharraren ondorioz buruan kolpe handia hartu zuen. Iruñeko ospitale gunera eraman zuten. Han hil zen. Ezbeharrak Etxarriko Kale Nagusian, Gure Ametsa jubilatutako elkartearen ondoan, izan zen. Istripuaren ondorioz autoko gidariak, emakume etxarriarra, antsietate krisia izan zuen eta artatua egin zuten. Istripua Foruzaingoak ikertu zuten. Auto-istripuengatik aurten Sakanan hildako hirugarren pertsona da etxarriarra. Aizkorben bidetik atara eta etxe baten kontra jo ondoren Burlatako gizon ezko bat hil zen otsailaren 6an. Eta ilbeltzaren 31n Etxarritik Arbizurantz oinez zihoran gazte arbizuarra auto batek harrapatu eta hil zuen. Auto gidariak ihes egin zuen. 2015ean trafikoez behar batengatik sakandar bat hil zen.



## SAKANA

## Prekarietatearen kontra eta enplegu duinaren aldeko kanpaina abiatu du

Prekarietatea eta lan baldintzen okertzea izan dira, besteak beste, finantzek eragindako krisiak langileei ekarri dizkien ondorioak. Horri aurre egiteko LAB sindikatuak *Zure eskubideak* kanpaina martxan jarri du. Sindikatuko Sakanako arduradun Gaizka Uhartek azaldu digunez, bost lerro ditu kanpainak.

Lehena kalitatezko enplegua da. Uhartek azaldu duenez, "Sakanako enpresa askotan malgutasuna eta lan jardunaldia handitu dira. Ordu estrak orokortu dira." Horri aurre egiteko 35 orduko lan astea, ordu estren kontra, inposatutako jardunaldi partzialen, kaleratzeen eta malgutasunaren kontra eta azpikontratetako lan baldintza duinen alde "Sakanako jendartea aktibatu nahi dugu". LABekoek lan osasuna bermatu beharra dagoela uste dute. "Bizitzeko lan egiten dugu eta ezin dugu saiakera horretan osasuna galdu. Lan osasuna bermatuko duen eredu publiko baten alde egiten dugu." Mutuen erreformari aurre egiten diola iragarri du sindikatuak, mutuei eze-

# LABek lan eskubideen alde aktibatzerara deitu du

koa emanez eta zentro publikoen alde eginez.

Uhartek dioenez, "aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da bizitza duin batzuk bermatzeko". Horregatik, 1.200 euroko soldataren alde egingen dute. Baita lan berdina egiten dutenek soldata bera izatea ere. Aukera berdintasuna da LABen kanpainaren beste lerro bat. Sexu, jatorri edo ideologiagatik ematen diren banaketak salatu ditu Uhartek. Azkenik, LABeko kideek lan tokiak euskalduntzeko lan egingen dute.

## Prekarietatearen kontra

LABek bost lan ildo horiek zabaltearekin batera, prekarietatearen kontrako kanpaina abiatu du. "Nafarroan eman den aldaketak aberastasunaren eta lanaren banaketa justu bati erantzun behar diola" aldarrikatatu du Uhartek. Eta gaineratu du: "Sakanan eman den



Sakanako LAB sindikatuko ordezkariak prekarietatea salatzen eta eskubideak defendatzeko kanpaina aurkezten

langabezia datuen jaitziera eta prekarietatea erabat lotuta daude." Horregatik, prekarietatearen kontra egingen du sindikatuak.

Heldu den astetik aurrera Saka-

nan barna prekarietate salaketak jasotzeko postontziak jarriko dituzte. Helburu bera dute prekarietate-asalatu@gmail.com e-posta eta 619 742917 telefonoa. Uhartek azaldu du-

enez, "Sakanako enpresetan dagoen egoeraren argazkia guztion artean osatu nahi dugu". Jasotako salaketekin enpresa eta erakundeei eskaerak lutzuko dizkiete.

## LABen egoeraren azterketa

Langabeziak behera egin duela aitortuta ere, "datuek ezkututzen dutena" nabarmendu nahi izan du LABek. Azken bost hilabeteetan egin diren kontratuetatik mugagabeak %7,6 besterik ez direla azpimarratu du. Estreina-kontratu gehien zerbiltzuen sektorean egin direla ere gaztigatu dute. Uhartek azaldu duenez, "emakumezkoen kontratazioa (%51,44) gizonezkoena baino altuagoa bada ere, emakumezkoek kontratu mugagabe gutxiago dituzte (%42,7)". Emakumeak "normalean" zerbiltzu pribatuatarako kontratatzen dituztela eta sektore hori "lanpostu feminizatu gehien eta jardunaldi partzial gehien dituen da; ondorioz, prekarietatea hedatuen dagoena da". Uhartek nabarmendu du behin behinekotasuna eta prekarietatea lotuta daudela. "Orokorrean

behin behineko kontratuak egin dira gure eskualdeko industrietan. Enpresa askotan bi soldata eskala daude lan erreforma aplikatzearen ondorioz. Kontratazio berriek, gehienetan, lan baldintza kaxkarragoak pairatzen dituzte". LABetik salatu dutenez, "behin behineko kontratu gehienak legez kanpo eginak daude. Kasu askotan lan ikuskaritzaren aurrean salatu da eta ondorioz batzuk mugagabeko kontratua lortu dute". Eskubideak defendatzeko antolatzen direnek batzutan zigorrrak jasotzen dituztela gaztigatu du.

Sakanadarrek inguruko eskualdeetan lana opatu dutelako langabeziak behera egin duela azaldu du Uhartek. Langabezia eta kotizazio datuen jaitzierak alderatu ditu. "Langabetuen %54ak zerbiltzuen sektorean aurkitu du lana. Inguruko eskualdeetan Sakanan baino garatuago dago sektore hori, hemen %25,25 besterik ez baita".

Lan erreformak lan baldintzak okertzea ekarri duela nabarmendu. Sakanan eragin gehien duen lan hitzarmena metalgintzarena dela gogorarazi du Uhartek. Eta sektorerako UGTk eta CCOOksinatuak hitzarmenak baldintzen galera ekarri duela ere. "Langileak antolatzen diren enpresetan hitzarmenak ez ezik lan baldintzak mantentzea lortu dute". Sakanan "lan ordu gehiago sartzen dira, eros ahalmena galdu da eta ordu estrak sartzen ari dira". Lan merkatuan aukerarik ez dagoenez ikasleek ikasketak luzatzea erabakitzen dutela azaldu dute LABetik. "Gazteek beranduago ematen dute izena Nafarroako Enplegu Zerbitzuan". Helduei dagokienez, 2011ra bitartean kaleratuak izan ziren eta 50 urte-tik gora zuten langile askok "lana bilatzeko zailtasunak izan dituzte eta aukera izan dutenean erretiroa bilatu dute, 61 urterekin jubilatuta eta pentsioen galera handia izan dute".



## Lanpostuak

Finantza krisiaren eraginez, aurreneko bost urtetan %32 murriztu ziren lanpostuak. Suntsitutako lanpostuetatik 900 sei enpresei zegokien. Gizartesegurantzaren kotizatzen duten sakanadarren datuen bilakaera behean.

Urtea	Kopurua
2008	6.722
2013	4.532
2015	4.130

## Enpresen tamaina

Tamaina	Zenbat enpresa	Zenbat langile
5 langile baino gutxiago	544	%78,38
6 eta 30 langile artean	126	%18,15
30 langiletik gora	24	%3,45
<b>Guztira</b>	<b>694</b>	<b>4.130</b>

## Langileak sektoreka

Sektorea	Langile kopurua
Industria	2.228*
Zerbitzu pribatuak	1.043
Eraikuntza	247
Administrazio publikoa	224
Irakaskuntza	185
Soziokomunitarioa	127
Lehen sektorea	76
<b>Guztira</b>	<b>4.130</b>

\*Metalgintzako lan hitzarmena dutenetan 1.746 langile dira.

**Ana Santano**  
Bularra ez da soilik elikadura  
635 811 106  
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta  
Astehenetik ostiralera  
Eguneko menua  
9€  
Asteburuetan  
Menu berezia 25€  
948 467 876 · Altsasu

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda  
Zure bertako opari denda  
Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak  
Tel.: 948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**sorgiñak**  
taberna  
LAKUNTZA  
948 576 357

**Txooootx!**  
**JUANLUZENA SAGARDOTEGIA**  
MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik  
ODERITZ  
948 604 571 | 680 652 183

SAKANA / Altsasu

# Askapenak TTIP ekonomia itunaren kontra egitera deitu du



Askapenako kideak 25. urteurrenako ekitaldian, Altsasun.

**NATOrri duela 30 urte ezetz esan zitzaion moduan "ekonomiako NATO" den hitzarmenari ere bizkar ematera deitu du**

Larunbatean hiru hamarkada beteko dira NATOrri buruzko erreferenduma egin zela. Hego Euskal Herrian ezezkua nagusitu zen.

Efemeridea gogoan Askapena erakunde internazionalistak biharko ekitaldiak antolatu ditu Altsasun. "Gaur inoiz baino gehiago aldarrikatu nahi dugu herrion burujabetza, elkartasun internazionalistaren defentsa sutsua egiteaz

**NATOrri buruzko erreferenduma, 1986ko martxoaren 12an**

Herria	Errolda	Botoak	Parte hartzea	Baliogabeak	Txuriak	Abestentzia	Bai	Ez
Altsasu	5515	3955	71,71	54	55	28,29	1192	2577
Arakil*	2174	1341	61,68	14	15	38,32	403	842
Arbizu	672	499	74,26	11	12	25,74	50	419
Arruazu	111	65	58,56	3	4	41,44	5	49
Bakaiku	294	207	70,41	1	2	29,59	17	179
Ergoiena	505	351	69,50	2	3	30,50	20	325
Etxarri Aranatz	1732	1224	70,67	11	12	29,33	143	1037
Irañeta	134	76	56,72	0	1	43,28	32	37
Iturmendi	325	239	73,54	9	10	26,46	45	159
Lakuntza	763	557	73,00	4	5	27,00	148	392
Olatzagutia	1514	1076	71,07	5	6	28,93	265	781
Uhartea Arakil	686	446	65,01	13	14	34,99	125	282
Urdiain	606	411	67,82	6	7	32,18	61	336
Ziordia	338	257	76,04	5	6	23,96	72	169
<b>Sakana</b>	<b>15369</b>	<b>10704</b>	<b>69,65</b>	<b>138</b>	<b>152</b>	<b>30,35</b>	<b>2578</b>	<b>7584</b>

\*Irruzun Arakilen barruan zegoen.

aparte. Herri bezala eskubidea dugu munduko herriak errespetuz, berdintasunez eta elkarren arteko osagarritasunez harreman-tzearen alde egiteko".

Erakunde internazionalistak "bere garaian herriak ebatzi zuen bezala, egitura politiko-militar horretatik irteteko premia" aldarrikatu du. Eta, aldi berean, Euskal Herriak TTPari EZ kanpainaren baitan eginen diren ekimene-tan parte hartzea deitu du; hainbat eragile sozial, sindikal eta alderdik bategiten duten dinamikaren bidez

TTIP (Merkataritza eta Inbertsio-etarako Batasun Transatlantiko, ingelesezko akronimoan) bezalako hitzarmen politiko ekonomikorik ez dadin gure herrian gauzatu.

**TTIP**

Amerikako Estatu Batuak eta Europa negoziatzen ari diren ekonomia hitzarmena da TTIP. Askapenaren iritziz, NATOren bidezko "berrindartze politiko-militarrarekin aski ez eta inperialismo yankee-ak, aurrekaririk ez daukan bere hegemoniaren gainbeherak estututa,

Europako potentziekin batera, bere proiektu ekonomiko-politiko neoliberalak sakontzea erabaki du".

Askapenatik gaztigatu dutenez, itun horren bitartez "are gehiago murriztu nahi dituzte lan eskubideak, ingurugiroaren babesa eta eskubide sozialak. Gainera, herri burujabetzari geratzen zaion apurra ezabatzeko helburua ere badu, horiek guztiak transnazional handien botere eta etekin gosearendako oztopo diren neurrian". TTPri Hilary Clintonek "OTAN ekonomiko" deitu ziola gogorarazi dute.

>> **Arbizu**

## Ainara Ladron atxilotua

Donostiako auzitegian asteazkenean epaiketa zuen Ainara Ladronen eta ez zen agertu. Epailak bera atxilotu eta espetxeratzeko agindua eman zuen. Ertzaintzak arbi-zuarra larunbat eguerdian atxilotu zuen, Zarautzen, prentsaurrekoa eman ondoren. Martuteneko

espetxean dago preso. Ladronen atxilotu salatzeko larunbatean bertan 30 bat arbi-zuarrek kontzentrazioa egin zuten eta haren askatasuna aldarrikatu zuten.

Eleak-Libre mugimenduk elkartasuna adierazteko "martxa laranja" antolatu du iganderako.

12:00etan jarri du hitzordua espetxe inguruan. Donostiako epaitegiak, bestalde, A8 autobidea ixte-gatik protesta egin zuten bost gazteen kontrako epaiketa martxoaren 18rako deitu du. Eleak-Libre egun horretan epaitegiaren protestatzeko deia egin du.



Arbi-zuarrak Ainararen askatasuna aldarrikatu zuten. UTZITAKOIA

**SAKANA**

## «Biktima guztien aitortza eta erreparazioaren bidean pausuak emateko garaia da»

Motibazio politikoen atzetik hiltzutenen senideek eta lagunek horixe eskatu zuten Iruñean atzo. Biktimen aitortza eta erreparazioa "bazterkeriarik gabe" egiteko eskatu zuten. Agerraldia egin zuten hildakoen senide eta lagunen artean Mikel Arregi (Lakuntza), Anjel Gurbindo (Olatzagutia) eta Josu Zabala (Etxarri Aranatz) zeuden.

Nafarroako Gobernuari "borondate aldaketa" aitortuzioten, baina egia zein erreparazioaren printzipioak defenditzerokan "hitz hutsetan" ez geratzeko eskatu zioten. "Urte luzez, erabateko bazterketa ofiziala eta instituzionala" izan zutela kritikatu zuten. "Bizi genuen egoera mere-

zi genuela edo haren errudun ginela sinetsarazi digute. Ukatu egin zaigu justizia eta egia izateko eskubidea". Joan den urtean Nafarroako Parlamentuak onartutako legeak eta erakunde agerraldiak "egindako minaren erreparazioa egiteko aukera eman zuen".

Baina Nafarroako Parlamentuak onartutako legeari estatuak Espainiako Auzitegi Konstituzionalean helegitea jarri zion. Kritikatu zuten, "Bote-aren Gehiegikeri Delituen Biktimendako ezarritako justiziarako oinarriko eskubideen inguruko Nazio Batuen adierazpenaren kontra jo du azken finean".

>> **Ziordia**



## Axiori buruzko dokumentala, garagarrilerako

Axioren Lagunak ekimenak jakinarazi du Jose Ignazio Flores zenari buruzko dokumental garagarrilerako prest izanen dela. Hura mustutzeko ekitaldi xumea egin nahi dute, baina horren berri aurrerago emanen dute. Axiorioren Lagunak joan den urteko ilbeltzaren 17an zuten Floresi buruzko dokumentala egiteko asmoa. 2015ean bertan mustu nahiz zuten dokumentala, baina ezin izan zen. Ekimenetik azaldu dutenez, filma "editatzerakoan izan ditu-

gun hainbat arazo direla eta dokumentala atzeratu egin da. Denaden, atzerapena baino ez da izan. Izan ere, egitasmoak aurrera jarraitzen du. Dagoeneko grabazio guztiak eginak daude, eta muntaketa lane-tan dago egun dokumentala".

Finantzazeko crowdfunding kanpaina egin zuten. 2.500 € nahi zituzten eta 2.760rekin itxi zuten. Ekarpina egin zutenei eta dokumentala gauzatzen lagundu duten guztiei eskerrak eman dizkiete.

>> **Arbizu**

## Droga trafikoaren kontrako sarekada

Guardia Zibilak jakinarazi du Jocker operazioan 10 pertsona atxilotu eta droga trafikoaren kontrako bi sare desegin dituela. Iturri beraren arabera Marokotik haxixa ekartzen zuten, haren zati bat Nafarroan saltzen zuten eta beste Herberetara eramaten zuten, speedarekin trukatu eta sustantzia hori Nafarroan saltzeko. Atxilotutakoek bi sare osatzen zituztela jakinarazi du ere.

Guardia Zibilak jakinarazi duenez, Arbizun, auto baten barruan estalitako 70 gr kokaina atzematean abiatu zuten operazioa. Atxilotutakoei droga trafikoagatik osasun publikoaren kontrako delitua eta erakunde kriminaleko kide izateagotzi diete. Tafallako Instrukzio 2. Epaitegiaren esku dago auzia.



## » Lakuntza

**Inguruko senitarteko eta lagunak zein bere bizitza inguratzen duena ezagutzen ari da Oihan, gainerako haurrak bezala. Asperger sindromeak eragiten dizkion berezitasunekin ulertu eta moldatzen du egunerokoan**

Maialen Huarte Arano

Kemena eta indarra. Bi adjektibo horiek deskriba dezakete Oihan. Zazpi urteko lakuntzarra da eta laurekin antezmanzioten Asperger sindromea. Garapeneko desoreka edogorabehera neurobiologikobat da. Bereziki eragina du trebetasun sozialetan. Ohi baino zailtasun gehiago izaten dituzte gainerakoe-kin elkar harremanak sortzeko. "Sindromea dutenen artean ohikoa da ironiak eta bromak ez ulertzea, arazoak dituzte enpatiarloan, interese finkoak dituzte eta tematu egiten dira gai batzuekin", azaldu du Estibaliz Salinasek, Oihanen amak.

Sindrome hori dutenen artean desberdinak dira jasaten dituzten eraginak, eta horiek ere pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera aldatu egiten dira. Dena dela, ohikoa izaten da errutinak mantentzeko beharra izatea, aztoratu egiten baitira aldaketekin. "Jakin genuenetik Asperger izena zuela Oihanek zuena, sindromeak beregan zuen eragina lantzen hasi ginen ahalik eta eragin negatibo txikiena izan dezan bere egunerokotasunean", azaldu du amak. Aldi berean, argi utzi du Asperger ez dela gaixotasuna, sindromea baizik. Hori horrela, terapien bidez landu daiteke eta murriztu egin ditzakete sindromeak eragindako zailtasuna: "astean bi egunez joaten da Oihan Luciernaga Elkartera eta gaitasun sozialak lantzen dituzte talde txikitan".

## Elkartean

Eguneroko jarduerari begira jartzen dira Luciernagan. Gehienendako arruntak diren zereginetan trebatzen dira: erosketak egitera joaten dira, parkera, zinemara, boleara... eta horietan guztietan sortu daitezkeen egoerak eta harremanak lantzen dituzte: "egoera ezberdinak planteatzen zaizkie eta nola aurre egin lantzen

# Kemenez beteriko gaitasuna, Asperger sindromearen aurrean

dute". Haserre zaudenean zer esan behar den edo zer esanda beste pertsona minduta senti daitekeen, nola eskatu laguntza eskolan, nola jolasten den taldeka, ilara batean norbait aurreratzen bazaio nola adierazi gaizki egin duela... eta halako egoerak izaten dituzte aztertzeko. Gainerakoendako ohiko diren hartu-emanetan ez dute asmatzen nola jokatu, zer egin edo nola adierazi eta horretan bideratzen dituzte terapien bidez.

Arlo sozialean dituzte zailtasun handienak Asperger sindromea dutenek. Pertsonekin lehen kontaktua nola egin, lehen hitzak nola adierazi edo keinukerak ulertzerakoan sortzen zaizkie zailtasunak. Ez dute asmatzen nola egin behar diren horiek. Hain zuzen, Salinasek horixe aipatu du zailtasunen artean: "ezezagunekin edonola eta edozein unetan elkarrizketa bat hastea, edonorekin joan ahal izatea... azaldu behar zaie pertsona ezagunekin edo ezezagunekin ez dela modu berean jokatzeko".

## Etxean ere, asko egiteke

Egoera berriekin egiten du topo edozein haurrek egunerokoan. Erronka are handiagoa da Asperger duen norbaitendako. Euren burua une berri horretan kokatzeko zailtasunak dituzte, aztoratu egiten dira eta ez dakite nola egin aurre. "Egunerokoan errutina mantentzeak lasaitasuna eragiten die baina bizitza ez da errutinarioa, beraz, gu etxean saiatzen gara orden bat mantentzen bai baina errealtatea izan den hori ere Oihanekin lantzen, hau da, ezusteko horiekin nola jokatu irakasten", jakinarazi du Salinasek. Dena dela, zenbaitetan bai, aurreratu egiten dizkiote ohikotik aldentzen den gertaerak (urtebetetzeak, ateraldia...) Lehenago adierazita, hobeki barneratzen



Gorka Aldabe Lazkoz eta Estibaliz Salinas Burillo, Oihanen gurasoak.

dute eta uneari hobeki egiten diote aurre.

Moldatu edo egokituz dira Oihanen etxean bere ikuspegira: "Gauza berriak egiten ikasten dituenean, pausoz pauso azaldu behar zaizkio egin beharrekoak bidean egin gabekorik utzi ez dezan". Adibide asko ditu Salinasek azaltzeko zein neurrian izan den etxeko egokitzea: "Hortzak bakarrik garbitzen hasi zenean, komunera bidaltzen genuen eta garbitzeko esaten genion, baina, hori bakarrik esanda, gerta zitekeen, behin hortzak garbituta grifoa ixtea ahaztea. Horregatik, pauso guztien berri eman behar zaie hasieran", dio. Esaterako, agindu edo eskaera bat egiten zaionean eta bi ekintza desberdin barnebiltzen dituen agindu horrek, zailtasunak dituzte osotasunean betetzeko: "Lau urterekin esaterako, etxera iritsi eta kendu berokia eta eseri esaten zenionean, berokia kendu gabe esertzen zen. Azken aginduarekin baino ez zen gelditzen", komentatu du. Oihan kemen handiarekin eta indar askorekin ari da berarendako ez horren arruntak direnak barneratzen.

## Ikaskideekin, kontent



Ikastolako lagunek badakite nola jokatu Oihanekin. Hark dituen zenbait jokabide ez ulertuta ere, badakite asmo txarrez ez duela modu horretan jokatzeko. "Lagunek badakite askotan galdetzen dituela gauza berberak behin baino gehiagotan, baina badakite era berean ez duela nahita egiten". Andra Mari ikastolan ikasten du

Oihanek. Bestelau haurrekin batera "laguntza" gelara joaten da. Material berezia erabiltzen eta motibazioa lantzen dute. "Hobera egin ahala edo gaitasunak barneratu ahala, garapena handiago izan da eta gero eta denbora gutxiago pasako du gela horretan, bere gainerako ikaskideekin batera ohiko gelan egoteko".

"Terapiari esker eta jakindasindromeak zer dakarren garapenean asko egin du aurrera". Luciernaga elkartearekin oso kontent dira

Oihanen gurasoak. Garapenean laguntza handia eskaintzeaz gainera, familia osoarendako babes handia izan delako.

## SAKANA

## Miranda-Altsasu aldiriko tren zerbitzua eskatu dute

Egungo tren azpiegitura erabiliz Miranda de Ebro eta Altsasu arteko aldiriko tren zerbitzua martxan jartzea eskatu dute. Arabako Kontzeju Elkarteak (AKE) Eusko Jaurlaritzari egindako eskaera berretsi du. Ana Oregi sailburuak Euskadiko Parlamentuan egitasmoari buruzko bideragarritasun ikerketa aurkeztu zuen joan den astean. Ondorioa: ekonomikoki ez da bideragarria.

AKETik azaldu dutenez, ikerketak ez dio haien eskaerari erantzun, trenbide berri bat egitea jasotzen baitu ikerketak. Kontzeju arabarrek, ordea, Eusko Trenek

## Sei

**Sakana eta Araba egunero lotzen dituzten trenen kopurua, hiru norabide bakoitzean. Baina ez da Izurdiagan gelditzen. Ibilbideertainekoak dira tren horiek.**

egungo trenbidea erabiliz aldiriko zerbitzua ematea nahi dute. Egun dauden geltoki eta apeaderoak erabiliz; "herriak elkarrekin lotuz, baita Gasteiz eta Jundizekin ere. Konboi bat besterik ez da behar". Adif-ek egun eskaintzen duen zerbitzua "prekarioa" dela diote kontzeju arabarretatik.

## »

## Gozamenez programaren urteurren ospakizunerako gazteak behar dira

**Musika, dantza eta antzerkia uztartuko dituen ikuskizun bat prestatzeko 16 urtetik gorako boluntarioak eskatu dituzte**

Gozamenez programak gazteen sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural eta aberasgarri batetik lantzea du helburu. Sakanan programak 15 urte eginen ditu aurretik. Hura sustatzen duten eragileek urteurrena "ederki" ospatu nahi dute, "ilusio eta konplizitate handiz... ezin baita beste modurik izan; merezi du eta!" Ospakizun horietako ekintza nagusia antzerkia, dantza eta musika uztartzen dituen ikuski-

zuna izanen da. Kabaret erotikoa izena jarri diote.

Gozamenez programako Sakanako arduradunen asmoa da ikuskizuna gazte talde batek sortzea eta Sakanako musika bandak zuzenean musika jotzea. Ikuskizuna antolatzeko Irantzu Gonzalez dantzari altsasuarraren eta Ion Barbarin aktore eta zuzendari ihabar-darraren laguntza izanen da. Apirilaren hasieran hasi nahi dute entseguen. Entseguak, hasiera batean, ostiraletan 19:30etik 20:30era izanen dira. Plaza mugatuak izanen dira. Sustatzaileek



Gozamenez ur festa goxoa.

dibertsioa eta gozamina bermatuta daudela ziurtatu dute.

GRUPO TANATORIO


# IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



## Rosario Gabirondo Aseginolaza

Emakume langilearen egunean utzi gintuzun. Ez dago egun hoberik guretzat emazte, ama eta amiña bezala eman diguzuna adierazteko.

**Zure familia**  
Iturmendi.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin**  
**948 564 275 telefonora**

## Oroigarriak



**Guaixe**  
**KOMUNIKAZIOA**

948 564 275

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.  
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

### Lana/ Negozioak

#### LAN ESKARIA

Adineko pertsonak zaintzen dira. Orduka etxeetan, asteburuetan ere. Tel 948 46 71 69.

---

#### Erosi / Saldu

##### EROSI

Bigarren eskuko bizikleta estatikoa. E rosiko nuke. Tel 699 780 772.

---

##### SALDU

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK**

**Teka ontzi-garbigailua saltzen dut.** Gutxi erabilia, bermea du. Tel 628 42 77 25.

---

#### IBILGAILUAK

**Toyota urdina, Rav 4 saltzen da.** Bost ate, gasolina, Etxarri Aranatzen. Tel 619 41 75 93.

#### Higiezinak

##### ETXEBIZITZAK

**SALGAI**

#### Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzen.

4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuek deitu 676 92 71 65 telefonora.

---

#### Pisua salgai Etxarri Aranatzen.

84 m2 erabilgarriak, berrituta, eguzkitsua, 3 logela, komun 1, egongela, sukalde, trasteleku bat pisuan bertan, berogailua. 72.000 € negoziagarriak.

---

#### Opatutakoak / Galdutakoak

##### OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

---

#### Ikastaroak

##### Udako Euskal Unibertsitateak (UEU).

Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatuta ditu Nafarroan, [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus)

#### Oharrak

##### Amalur Montessori Haur Eskola.

Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta [amalur@amalurelkarrea.org](mailto:amalur@amalurelkarrea.org)

---

##### Etxarriko irakurle taldea.

Martxoaren 10ean, ostegunean, 19:00etan liburutegian elkartuko da Lourdes Oñaederraren "Babes bila" liburuz hizketazko.

---

##### Kafe tertulia.

"Haurren negarrari arreta eskaini, maitasuna eta errespetua". Zergatik eta zertarako egiten dute negar haurrek? Zer adierazi nahi dute negararen bidez? Nolako da malkoen hizkuntza? Hizlaria: Alfredo Hoyuelos, Filosofia eta Hezkuntza Zientzia europar doktoresetaduna. Martxoaren 16an, 17:00etan Kattuka Haur Eskolan.

##### Altsasuko irakurle taldea.

Martxoaren 16an, asteazkenean, 18:00etan "Assata Shakua. La lucha desde la raza" liburuarri buruzko tertulia, Maria Castejon Leozarekin, Altsasuko Iortia kultur gunean.

---

##### Cava festa Lakuntzan.

Maiatzaren 20an, 21ean eta 22an izanen da. Txingurriyek bazkariak eta afariak emanen ditu. Lagundu nahi duenak [kultura@lakuntza.eus](mailto:kultura@lakuntza.eus) helbidera idatzi dezala.

---

##### Nicoleren aldeko diru-bilketa.

Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

---

##### Benigno omentzeko auzolana.

Apirilean egun osoko omenaldia egingen da Urdaingen. Proiekturako den ikusentzuzkoa egiteko argazkiak behar dira. Baita egunean bertan lan egiteko. Harremanetarako: [benignolaganak@gmail.com](mailto:benignolaganak@gmail.com)

---

##### Berria Beka.

Berria Hedabideen Fundazioak, Berria Taldearen eta Laboral Kutxaren laguntzaz, Berria bekaren hirugarren aldirako deialdia egin du, euskara, hedabideak eta teknologia berriak kontuan hartuta proiektu berriak sortu eta martxan jartzeko. Proiektuak 2016ko apirilaren 1erako aurkeztu beharko dira eta proiektu irabaz-

leak 12.000 euroko laguntza jasoko du proiektua martxan jartzeko.

---

##### GoiEner Iruñean.

Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete lehenengo eta hirugarren asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

---

##### Autoenplegurako laguntza.

Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

---

##### Mintzakide proiektua.

Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

---

##### Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.

Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

##### Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.

Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza)  
[euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

---

##### 3MBk kontu korrontea zabaldu du.

Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

##### Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

---

##### Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosjosefinaarreguilaganak.blogspot.com](mailto:amigosjosefinaarreguilaganak.blogspot.com) eta [amigosjosefinaarreguilaganak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilaganak@gmail.com)

##### Eskuratu zure beleixeguaixe txartela.

50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus).

##### Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.

Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publiko inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

##### Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda.

Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

##### Herialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.

Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idatzeko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

##### Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.

Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigrazioa@sakanamank.com](mailto:immigrazioa@sakanamank.com) posta elektronikoa.

- Lucia Stefania Constantin, otsailaren 1ean Arbizon.
- Iraia Razkin Retegi, otsailaren 29an Arbizon.
- Auritz Arratibel Goñi, martxoaren 3an Etxarri Aranatzen.
- Arhane Lizarraga Beraza, martxoaren 6an Irañetan.

---

#### EZKONTZAK

- Mikel Azpiroz Armendariz eta Gaizkane Andueza Razkin, martxoaren 6an Lakuntzan.

---

#### HERIOTZAK

- Mari Carmen Berastegi Lasa, otsailaren 20an Lizarragan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

##### Gazteendako sexualitate aholkularitza.

Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

---

##### Izan zaituz Mintzakide!

Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) e-posta edo [sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.

---

##### Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu.

Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com) web gunean.



## Boxeo



## Nafarroako Boxeo Txapelketa Irurtzunen

Larunbatean, 17:00etatik aurrera, Irurtzungo Biaizpe pilotalekuan

Larunbatean boxeoko ringean bilakatuko da Irurtzungo Bi Aizpe pilotalekua. Nafarroako Boxeo Amateur Txapelketa hartuko du Irurtzungo pilotalekuak, 17:00etatik aurrera. Lehenik eta behin sailkatze faseak jokatu dira eta 19:00ak inguruan txapelketako finalak.

### CESAR BAM-BAM NUÑEZ VS JONATHAN CASTAÑO

Nafarroako Txapelketa erabaki ondoren, boxeolari profesionalen txanda helduko da, jaialdiko plater nagusia, hain zuzen. Cesar Bam-Bam Nuñez boxeolari nafarrak Jonathan Castañoa asturiarra izango du aurkari. Cesar Bam-Bam Nuñez Joxe Vicente Eguzkizaren ikaslea da (Kanku Gym). Sarrerak aurretik eros daitezke (Kanku Gym-en eta Bar Gurun, aukian 13 euro eta harmailan 10 euro) edo egunean bertan, leihatilan (aukian 15 euro eta harmailan 12 euro).

## Pilota

## Altsasu Paz De Zigandaren kontra bihar

Espainiako Kluben Arteko Pilota Txapelketan, Ohorezko Mailan lehian dabil Sociedad Deportiva Alsasua-ko taldea. Asteburu honetan Altsasuko Paz de Zigande Ikastola taldea izango du aurkari. Partidak bihar, larunbat arratsaldean jokatu dira, 17:00etan, Burunda pilotalekuan. Sarrera dohainik da.

## GRAVNI ABIAN

Oztopoak oztopo, asteburuan hasiko da GRAVNI Pilota Txapelketa, Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko pilota federazioen arteko pilota txapelketa esanguratsua. Aurten arazoak izan dira, Frantziako Pilota Federazioak Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako pilotari eta elkarrekin txapelketan parte ez hartzeko estutu baitu. Atzean, Espainiako Federazioaren presioa nabari da. Pilotari batzuk ez dute jokatu, mehatxuengatik, baina beste batzuk bai. Asteburuan hasiko da GRAVNI. Ipar Euskal Herriko taldeak Arabako hartuko du, egungo txapelketa den Nafarroa Gipuzkoa eta Errioxa Bizkaia. Nafarroako selekzioan sakan-darrak arituko dira.

## Atletismoa



## Emakume, igandean III. Lilasterketa Altsasun

Emakumeendako proba ez lehiakorra igandean 11:30ean abiatuko da Foru plazatik

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunaren ildora, Altsasuko Udalak, Emakumeen Bilgunearen bitartez, III. Lilasterketa antolatuko du, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin. Donostiako Lilatoi arrakastatsua Sakanara ekartzeko antolatu zen ekimena, eta aurten hirugarren urtez jarraian antolatuko da.

Lilasterketa igandean izanen da, Altsasuko Foru plazatik abiatuta, 11:30ean. Berdintasunaren aldeko lasterketa hau ez da proba lehiakorra izango. Korrika, oinez,

patinetan... norberak ahal duen moduan egiteko aukera izango du, helburua emakumeen parte hartzea sustatzea delako, 0-99 urte bitarteko emakumeena, emakume guztienta. Probak San Silbestrearen ibilbide bera izango du, 4 km ingurukoa. Bukieran hamaiketako izanen da.

## Izena ematea, dohainik

Lehen edizioan 122 emakume parte hartu zuten proban eta aurreko urtean, aldiz, 89 emakume. Izena ematea dohainik da, aurretik [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web orrian edo bestela, egunean bertan, 11:00etatik aurrera Gure Etxean.

## &gt;&gt;

## 10 sakandar Lilatoian

Sakandarrak 27. Lilatoian

1.	Maitane Guerrero (Hernani)	18:01
171.	Amaia Aristu (Olaz)	25:04
616.	Marian Mendoza (Etx)	28:35
647.	Bel Pozueta (Alts)	28:41
649.	Nuria Pozueta (Alts)	28:41
854.	Kristina Okariz (Arbizu)	29:37
900.	Haizea Artola (Iturm)	29:48
901.	Mari Jose Lopez de Goikoetxea (Iturm.)	29:49
945.	Leire Mintegi (Etx)	29:56
2.585.	Irati Gomez (Alts)	35:19
2.893.	Maria Pilar Etxeberria (Alts)	35:59

Euriak, hotzak, kazkabarrak... ez zituen emakumeak kikildu eta izena emanda zeuden 5.000 emakumeetatik 3.998ek osatu zuten igandean Donostian jokatuak 27. Lilatoia (5 km). Maitane Guerrero hernaniarrak irabazi zuen. 10 emakume sakandarrek bukatu zuten proba eta azkarrena Amaia Aristu olaztiarra izan zen, helmugara 171.a iritsi eta gero (25:04).



## Mendi lasterketak



## Lakuntza-Aralar eta Triku Trailerako izena ematea zabalik

Garagarrian jokatu dira bi probak baina izena ematea aurretik egiteko gomendioa luzatu dute antolatzaileek

Asko geratzen da, baina garagarri-laren 12an jokatu den Lakuntza-Aralar mendiko lasterketarako etagarri-laren 26an Etxarri Aranatzeko jokatu den Triku Trail lasterketarako izena ematea zabalik dago eta inskripzioak lehenbailehen egiteko deia egin dute antolatzaileek, tokia bermatzeko.

Lakuntza-Aralar mendiko lasterketan aurten bi ibilbide prestatu dituzte. Ohikoa, luzea (24,7 km), eta ibilbide laburragoa (13,3 km). Izena ematea zabalik dago [www.lakuntza-aralar.com](http://www.lakuntza-aralar.com) edo [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) web orrietan. Bestalde, Etxarri Aranzko Triku Trailerako (21 km) izena ematea zabalik dago [www.triku-trail.wordpress.com](http://www.triku-trail.wordpress.com) edo [www.kirol-probak.com](http://www.kirol-probak.com) web orrietan. Bi probak Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako puntuagarriak izango dira.

## Mendi lasterketak

## Beraza eta Munarriz fin II. Galar Trailen

Sakandarrak II. Galar Trailean

1.	Xabier Zarranz	1:36:01
5.	Jose Luis Beraza (Uhar.)	1:39:49
9.	Aritz Munarriz (Etx.)	1:42:03
15.	Gorka Santesteban (Etxarren)	1:44:51
16.	Joxeja Maiza (Etx.)	1:45:09
31.	Fidel Jimenez (Etx.)	1:50:04
32.	Julen Lizarraga (Leitz.)	1:50:34
49.	Alberto Razkin (Etx.)	1:55:25
106.	Gorka Arratibel (Etx.)	2:05:11
116.	Aitor Salinas (Etx.)	2:07:25
149.	Jose Antonio Salgado (Alts.)	2:13:45
152.	David Mutiloa (Iru.)	2:14:26
186.	Juan Daniel Lakuntza (Etx.)	2:18:58

Uhartearra bosgarrena eta lehen beteteranoa izan zen eta etxarriarra 9. postuan sartu zen helmugara

Hasi da Nafarroako mendi lasterketen egutegia. Igandean II. Galar Trail lasterketa jokatu zen Subizan, 19 km eta 1.100 metroko desnibel positiboa zuen proba. Traila are gehiago gogortu zen igandeko hotz eta eguraldi gaiztoarekin, eta ibilbidean barna lohia eta elurrari aurre egin behar izan zioten proba osatu zuten 290 mendi korrikalariak. Xabier Zarranz (1:36:01) eta Victor



Tarteka elurretan egin behar izan zuten korrika. Argazkian, Munarriz. UTZITAKOIA

Amatriain (1:36:02) izan ziren lehena, eta Uxue Murolas gailendu zen emakumezkoetan (1:53:20). Aralar Mendi taldeko Jose Luis Beraza uhartearra bosgarrena iritsi zen helmugara (1:39:49) eta pro-

bako lehen beteteranoa izan zen. 12 sakandarrek lortu zuten proba despeditzea, eta Berazaz aparte, Aritz Munarriz etxarriarra sartu zen Top 10ean. Munarriz 9. postuan sailkatu zen (1:42:03).

## Beraza Nafarroako selekzioarekin



Nafarroako Mendi Federazioak mendi korrikalarien selekzioa izanen du aurten. Edorta Elizalde, Alfonso Serranok eta Javier Raventosek osatutako komiteak aukeratu ditu selekzioarekin ariko diren korrikalariak, eta horretarako Montejurra-ko Jurrumendi Trail, Berako Maratoi Erdia eta Elomendiko Xtreme lasterketen korrikalarien maila hartuko dute aintzat. Besteak beste, maiztaren 15ean Luesian jokatu den Aragoiko Banakako Txapelketan eta garagarri-laren 12an Madrilgo Cercedilla jokatu den Espainiako Txapelketan (44 km, 2.650 m desnibela) ariko da selekzioa. Baina apirilaren 2an ibilbide luze edo ultratrail probetako selekzioa jarriko da martxan, Gironako Viladraun jokatu den Montseny Ultra Trailean (80 km, 4.500 m desnibela). Proba honetarako Nafarroako selekzioa jadanik osatuta dago. Tartean dago Jose Luis Beraza. Uhartearrak Eneko Garde, Ruben Aristu, Victor Amatriain, Aitor Iraizoz, Xabier Zarranz, Gorka Ripodas, Sergio Aramendia eta Uxue Murolas izango dituzte taldekide Montsenyn aritzeko.





## Pala



Euskal Herriko Pala Txapelketako finalista. UTZITAKOA

## Igoa eta Goena, Euskal Herriko Txapelkunak

Parot eta Antsoategi, 2. mailako txapelkunordeak

Euskal Pilota Federakuntzak antolatutako Nesken Paleta Goma Txapelketak baditu txapelkunak, eta txapelkun sakandarrak gainera. Asteburuan jokatu tuko finaletan, bigarren mailan Parot eta Antso-

tegi etxarriarrei 15 eta 30 irabazi zieten Perurenak eta Arrillagak. Eta Euskal Herriko finalean, aldiz, txapelak Etxarrira etorri ziren, Gure Pilotako Igoak eta Goenak 30 eta 28 hartu zituztelako menpean Olarreta klubeko Idoiaga eta Zugaza.

## Automobilismoa

## I. Sakanako Lurgaineko Rallya, ate joka

Martxoaren 19an eta 20an jokatu da Altsasun eta Olaztin. Izena ematea zabalik dago [www.fotomotor.es](http://www.fotomotor.es) web orrian

Sakana Motorsport taldeak I. Sakanako Lurgaineko Rallya antolatu du martxoaren 19rako eta 20rako. Proba Nafarroako Lurgaineko Rallyen Txapelketarako puntugarria izanen da eta baita ere Lurgaineko Open ASR KUMHO txapelketarako eta Lurgaineko RACVN Koparako.

Martxoaren 19an Altsasuko Foru Plazatik abiatuko dira autoak, 20:00etan, irteera ekitaldian. Baina rallya hurrengo egunean, goizeko 10:00etan, abiatuko da Olaztik Erburua kiroldegitik. Guztira kronometratutako 6 eremu osatu beharko dituzte parte-hartzaileek, 29,34 km kronometratu, guztira. Sari ematea igandean, 14:30ean izanen da, Olaztik Clinkerren.

Izena ematea zabalik dago [www.fotomotor.es](http://www.fotomotor.es) web orrian, martxoaren 11ko 20:00ak arte.

Goñik eta Arivek ezin izan zuten Legazpi-Gabiria Rallysprintean puntuatu



Arrakastatsua izan zen asteburuan jokatu tuko 28. Legazpia-Gabiria Rallysprinta. 43 ibilgailuk osatu zuten proba, eurriari, elurrari eta hotzari aurre eginez. Enrique Barrenetxea-Arando pilotua eta Anartz Onaindia kopilotua izan ziren azkarrenak (13:59), Mitsubishi EVO IX kotxearekin. 12 taldek proba utzi behar izan zuten, Sakana Motorsport taldeko Garikoitz Goñi pilotu etxerriarrek eta Iñaki Aribe kopilotuak tartean (Renault Megane), ibilbidean okertzeagatik. "Entrenatzeko egunean federazioko batek esan zigun hortik zela lotura; beste urtean hortik joaten zen. Gainera, beraiek ere hortik egin zuten lehendabizikoan. Finean, lehendabiziko lotura gaizki egin genuen eta ikusi ziguten, gero konturatu ginen gaizki egin genuela eta beste bietan ongi egin genuen. Nahiz eta federaziokoak guri barkamena eskatu, epaileek deskalifikatzea erabaki zuten eta guri onartzea besterik ez zaigu geratzen. Argi dago hemendik aurrera zalantzaren bat badugu road book-a goitik behera berrikusi beharko dugula. Hurrengo lasterketa Lea Artibai rallya dugu eta horretan pentsatzen gaude dagoeneko" adierazi digu Garikoitz Goñik. Etxerriarrek diseinu berria estreinatu du kotxean.

## Herri kirolak

## Nafar Kirol Jolasetan 4. jardunaldia jokoan

IGANDEAN, 11:00ETAN, LARRAINTZARREN

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen 3. jardunaldia jokatu zen Etxarri Aranatzan.

Hiru kategoriatan jokatu zen jardunaldia: kimuen mailan (11-12 urte), haurren mailan (13-14 urte) eta kadeteen mailan (15-16 urte). Txapelketan 30 talde lehiatzen ari dira proba konbinatuetan eta 13 sokatira txapelketan, talde sakandarrak tartean. Zehazki, Iñigo Aritza ikastolatik sortutako taldeak -Iñigo Aritza, Aizkorri eta Urbasa- eta Andra Mari ikastolatik sortutakoak -Andra Mari, Ondatz, Beriain, Andia, Leziza eta Utzubar-. Etxarri Aranzako Euskalerriari pilotalekua bete egin zen taldeen nondik norakoak jarraitzeko.

### Sailkapena

Iruritan, Ororbian eta Etxarri Aranatzan jokatu tuko jardunaldien ondoren, horrela dago txapelketa. Kimuen mailako proba konbinatuetan ari diren 16 talderen artean Andra Mari doa lehena (21:03), Urbasa 7.a (21:54), Beriain 9.a (22:02), Andia 10.a (22:07), Aizkorri 11.a (22:28) eta Ondatz 12.a (22:57). Haurren mailako proba konbinatuetan Arantzazuri doa lehena (27:15), Andra Mari 3.a (29:12), Iñigo Aritza 5.a (32:07), Leziza 6.a (32:25) eta Utzubar 8.a (35:46). Bukatzeko, kadete mailako proba konbinatuetan Andra Mari da liderra (29:56), Iñigo Aritza 4.a (33:50) eta Beriain 5.a (35:05).

Sokatirari dagokionez, haurren



Etxarriko frontoia beteta egon zen igandean jokatu tuko 3. jardunaldian.

mailako A multzoan Iñigo Aritza dalehena (9 puntu) eta Leziza bigarrena (5 puntu) eta B multzoko liderra Andra Mari da (9 puntu) eta Utzubar 3.a (3 puntu). Eta kadeteen mailan, A multzoan Andra Mari doa lehena (9 puntu) eta Iñigo Aritza bigarrena (4 puntu). B multzo-

an, aldiz, Basaburua da liderra (11,5 puntu) eta Beriain 4.a (5,5 puntu).

### Asteburuan Larraintzarren

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen laugarren jardunaldia hartuko du Larraintzarrek, 11:00etan.

## Duatloia

## XX. Arbizuko Duatloian izena ematea zabalik

Martxoaren 19an jokatu tuko da XX. Arbizuko Duatloia. Goizeko 10:00etan Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriaren IV. Arbizuko Haur Duatloia jokatu tuko da, eta proba nagusia 15:30ean abiatu tuko da Arbizuko plazatik.

### IZENA EMATEA

[www.navarratriathlon.com](http://www.navarratriathlon.com) edo [www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com) web orrietan, martxoaren 17ra arte. Kategoriatxikikoek dohain. Federatuek 22 euro eta federatu gabeek 28 euro. XX. urteurrenagatik azken 3 urteetan parte hartu dutenek izen ematea doan izango dute eta azken bi urteetan parte hartu dutenei 5 euroko deskontua egingo zaie.



## Album ilustratu bat sortzeko tailerra

Tailergileak: Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso

Martxoak 30 asteazkena 17:00etatik 19:00etara Arbizuko liburutegian

- 6-10 urte bitarteko haurrendako (LH1-4)
- Izen-ematea Arbizuko liburutegian hilaren 22ra arte (948 017 777 [liburutegia@arbizu.eus](mailto:liburutegia@arbizu.eus))

Antolatzailea: **Mank**  
sakan

Laguntzailea: **ARBIZUKO LIBURUTEGIA**



# kultura >>

## Bardo etxarriarrak ez dira herriko finalean izanen



**Bigarren faseko joan-etorriko saioetan Einnekin taldeak ez du finalerako txartela lortu**

**B**ardoak, Nafarroako taldekako bertso ekimenak finalistak ditu. Etxarri Aranzoko finalean Atekerberts (Leiza), Obario Maldikoak (Iruñea) eta Larungo antenak (Bera) taldeak izanen dira, martxoaren 19an, 17:00etan. Bi hilabete iraun duen lehiaketa Etxarriko Euskalerriarri frontoiko finalarekin despidituko da. Hartarako, dagoneko txartelak salgai daude

www.bertsosarrerak.eus atarian eta Etxarri bertan. Finalaren ondoren triki-poteoa eta bardoan afaria izanen dira.

Lehiaketan urrutien iritsi den talde sakandarra Einnekin izan da, Eneko Lazkoz, Unai Artieda, Jon Arratibel. Bigarren faseko joan-etorriko bisaiok asteburuan izan zituen Berako Larungo antenak taldearekin (Julen Zelaieta, Patxi Castillo, Aitor Elexpuru). Ostira-lean Etxarriko gaztetxean eta larunbatean Berako Katakua ostuan beratarrak hobe aritu ziren eta haiek izanen dira finalean.

## Salazarren obran oinarritutako antzezlanari saria

**D**onostia Antzerki Saria jaso du Ados konpainiaren *Maitasunaren ostean, maitasuna* antzezlanaren ostean, *maitasuna* antzezlanaren ostean. Garbi Losadak idatzi eta zuzendutako obra da. Losada Dora Salazarren lan plastikotik abiatu zen, altsasuarraren obra "oso teatrala" dela uste baitu. Salazarren baime-narekin eta erabateko askatasunarekin sortu zuen antzezlanaren ostean. Hala, aktoreak antzeztan duten bitartean altsasuarraren obrak proiektatzen dira; gehienak emakumeen irudiak. Ikuskizun poetiko bat osatzen da. Eszenatokian Sara Cozarrek, Dorleta Urretabizkaiak eta Ane Gabarainek jokatu dute. Alzheimerrengatik pixkanaka, burua galtzen ari dela konturatuko da Aurora. Horrekin batera, bizitzaren kontrola galduz doa.

Donostiako Udalaketa Donostia Kulturak banatzen dute sari hori. Epaimahaiaren arabera Gipuzkoako hiriburuan joan den urtean euskaraz mustutako antzezlanetan onena izan da. Ados konpainiak hilaren 27an jasoko du saria.

## Emakumezkoen sormena hizpide

Gaur, 18:00etan, Arbizuko liburutegian; ludoteka zerbitzua izanen da



## Aurora Beltran akustikoan

Igandean, 19:00etan, Irurtzango kultur etxean



**M**artxoaren 8ko egitarauaren barruan, Castillo Suarez idazleak solasaldia gidatuko du. Suarezek hainbat emakume idazleren testuak ekarriko ditu: urrutikoak eta gertukoak, zaharrak eta berriak, baina guztiak bihotzeraino iristen direnak. Ez da hitzaldi bat izanen, testuak eta argazkiak izanen dira solasaldirako aitzakia.

**2**3. Emakumeari Buruzko Jardunaldiak despiditzeko, musika. Aurora Beltran kantariak, gitarrak lagun, kontzertu akustikoa eskainiko du Irurtzunen. Bakarka eta Tahures Zurdos taldean sortutako lanetako onena aletuko du agertokitik. Sarrerak, aurretik, kultur etxean eta udaletxean eros daitezke edota igandean, kontzertua baino ordu bat lehenago.

## bazterretik

Iosu Lizarraga

### Aplikazioen munduan nabigatzen IV: Telegram WhatsApp baino hobe

Kaixo irakurle maiteak, berriz ere, hemen naiz! Aste honetako edizioan zerbait desberdina ekartzen dizuet. Telegram eta WhatsApp-en diferentziak ikusiko ditugu, Telegram erabiltzera behartuta egon beharko genukeenaren zergatia.

WhatsApp-en abantailak:

- VoIP deiak.
- Egoera bat jarri.
- Mezuak gogoko bezala markatu.
- Zerbitzuaren egoera aplikazio-tik kontsultatu.
- Jakinarazpenean ikono batekin argazkia, bideoa edo audioa bidali diguten aipatzen da.
- Zure kontaktuetan ez dituzun erabiltzaileek zure argazkia ez ikusteko aukera.
- Aplikazioarekin eginiko informazioa (bidali eta jaso dituzun mezuak, bidali eta jasotako megabyteak...).

Telegram-en abantailak:

- GIF-en onarpena.
- Stickers-en onarpena eta sortzeko erraztasuna.
- "Bots"-en onarpena.
- GIF, irudi, IMDb, eta abarren online bilatzailea.
- Kode enkriptatua.
- Mugarik gabeko gailu kopurua.
- Nick-aren bidez jendea gehitu daiteke, telefono zenbakirik emangabe.
- Galerian irudiak gordetzeko aukera ematen digu.
- Txat sekretuak sortzeko aukera digu, web zerbitzarietan arrastorikuzten ez dituztenak eta mezuak autosuntitzeko denbora ezarri daiteke (segundo batzuk, minutu

bat, aste bat...).

- Aipamenak sortu ditzakegu (erabiltzaileari jakinarazpen bat iristen zaio).
- Taldeetan mezuak zanpatuz, banakaz erantzun daitezke (erantzuten ari zaren erabiltzaileari jakinarazpen bat iristen zaio).
- WhatsApp baino testu tamaina modu gehiago.
- WhatsApp baino web bertsioko askoz hobeagoa (WhatsApp-en mugikorren beharra duzu).
- Edozein motatako artxiboak bidaltzeko aukera (1,5 GB arte).
- Bideoak bidaltzeko 1,5 GB muga (16 MB WhatsApp-en).
- Taldeen tamaina handiagoa (200 erabiltzaile, WhatsApp-en 100).
- Supertaldeak: 200 erabiltzaile dituzten taldeak handitzeko aukera, 1.000 erabiltzaile arte.
- Kode ireki eta libre.

Ikusten denez, Telegramek WhatsApp gaintu du, ezaugarri, erabilgarritasun eta dibertsioaz hitz egiten. Oraindik WhatsApp-ek baino erabiltzaile gutxiago ditu, baina egunero handitzen doa. Nire kasuan, lantokian asko erabiltzen dugu, ordenagailu baten aurrean lan egiten dugun guztiendako tresna oso erabilgarria da. Bestalde, familian, lagun batzuekin eta talde oso handi eta anonimoetan (nick-aren bidez) ere erabiltzen dut. Beste funtzionalitatez hitz egiterakoan, eguraldi eta jokoen "bots" batzuk badituzte baita, denbora-pasa eta informazio moduan. Telegram teorikoki askoz seguruagoa da, ez ditu hainbeste zerbitzu erorketa, polifazetikoagoa da. Laburtuz, aplikazio askoz landuago eta osoagoa da. Besterik ez, hurrengo edizioa arte agurtzen zaituztet, zuen mugikorrak pertsonalizatzeko beldurra kendu, eta ikertu!

## Emakumeaz, argazki-rallya



**E**makumeari Buruzko Jardunaldiaren barruan Irurtzango emakumeen taldeak argazki rallya antolatu zuen igandeko. Izena eman zuten zortzi argazkilariek euren lanetarako gaia emakumea zen. Baina aurkeztu beharreko argazkiak *gonekin eta edonola* leloa-

rekin zerikusia izan behar zuten. Rallyko parte-hartzaileek 10:00etatik 13:00etara izan zuten euren argazkiak egiteko. Erga Larreak elkartean aurkeztu zituzten lanak eta epaimahaiak argazki landuekin egin zuten topo. Deliberazioen ondoren hiru sari banatu zituen: Sokorro Alzueta-

ri (1. saria), Ilargi Legarrari (2. saria) eta Arantxa Zudaireri eta Rakel Gainzari (3. saria). Fruitis dendaren zere banoa jaso zuten sari gisa. Giro ederrean joan zen rallya. Lehiaketara aurkeztutako argazkiak Irurtzun Telebistan ikusteko aukera izanen da, apirila hasierako saioan.

**CARNICERIA I. ARREGUI**  
HARATEGI ETA URDAITEGIA

tel. 948 576 067

**Sakanako hiltegiaren hildako haragia**

**Etxeko obradorea:**

- tripota
- tripotxa
- mihia
- kalluak
- saltxitxak
- frituak

Herriko plaza z/g LAKUNTZA



# Kaotiko eta krimen sindikatua

**A**urreko diskoa aurkezteko biran Kaotikok hiru urteetan ehun bat kontzertu eskaini zituen. “Gogorra izan zen, baina oso-oso elegantea. Oso ongi pasatu dugu”. Taldeko bateria Xabier Aldaz etxarriarraren hitzak dira. Asmo horrekin abiatu dira taldekideak oraingoan ere, *Sindicato del crimen* diskoa aurkeztera. Kaotikoren bederatzigarren lana (estudioko zazpi eta zuzeneko bi) otsailaren 26an aurkeztu zuten. Madril eta Bartzelonan promozio lanean egon ondoren, bateria-jotzaileak azken lanari buruzko argibideak eman dizkigu.

Aldazaren arabera *Sindicato del crimen* diskoak “produktzio alde-tik kriston lana dauka. Soinu ikaragarria dauka. Abestiak oso ondo landurik daude”. Taldea ezagutzen dutenek “betiko Kaotikoren ildo-ko kantuak opatuko ditu. Baina puntu berriak ere badaude. Lehen-go diskoekin alderatuta nahiko gogorra da”.

18 kantu prestatu zituzten, haietatik bi euskaraz. “Diskoa luzeegia geldituko zelako lau kantu kanpoan gelditu dira eta euskarazko kantu bakarra du diskoak”. Kantu horren letra Eneko Lazkoz etxarriarrak egin zuen. “Xaikori eta besteri ekarpenak egin dizkie. Guk ere aukera eman nahi genion. Gainera, laguna izanda, gusturago”.

## Diskoaz

Mezu zuzenak eta erritmo azkar-rrak jasotzen ditu lan berriak ere. “Tristeza da, baina gauzak ez dira aldatu. Politikoki, sozialki... gauzak dauden bezala daude”. Horregatik, Aldazek azaldu digu letrak



“oso antze-koak” direla. Haietan salaketa da nagusi. “Gauza bat beste-arekin ez dago haserre” eta festa giroko letrak baditu Kaotikok. “Denetarik. Behintzat, gure inguru-ko gauzez aritzen gara”.

Musikan aldaketa sumatzen du Aldazek: “*Mundo kaotiko* aurre-ko diskoa jarri eta azken hau jarri, garapen nahiko handia ikusten da”. Garapen horretan hainbat faktorek eragina dutela esan digu etxarriarrak: “hasieran 20 urte dituzu eta musika jakin bat entzuten duzu. Eragin askotatik tiratzen duzu. Baina konposatze-rakoan nortasuna hartzen zoaz eta aldatzen zoaz”. Aldazendako azken bi diskoak SA-ko Jimmy gitarr-jotzaileak ekoiztu dituela “oso nabarmena da”. Aurreko diskoan egindako lana “asko” gustatu zitzaion. “Lanean jartzeko eta gauzak egiteko beharrezko buelta erdi hori ematen digu”.

## Talde lana

Taldeko kideren batek lokalera ideia bat eramaten du: “egitura pixka bat, estrofa bat eta koro bat. Denen artean lantzen hasten gara, kantuari buelta emanez”. Taldekideen okupazioak direla eta lokalean gutxiago badaude ere, etxe-ko lanak eginda dituztela elkartzen dira Kaotikokoak. “Kanta bukatuta dagoenean Jimmyk esku sar-



tzen du, ekoizpenean. Kanpotik guk ikusten ez ditugunak ikusten ditu eta proposamenak egiten ditu. Eskertzen da”.

Maiatzera arte agenda nahikoa beteta du Kaotikok. Udan “lasaiago hartuko dugu, jaialdiren batean jotzeko”. Eta irailetik aurrera diskoaren aurkezpen bira-ekin segituko du. Estatuan kontzertu asko lotuta dituzte. “Euskal Herrian asko jo dugu. Ez dugujendea gutaz aspertzea nahi. Aurkezpenak diskoa eta taldea bera ezagutzen ez dutenei aurkezteko dira”. Kanpoan “oso ongi” hartzen

dituztela esan digu Aldazek.

Kaotikok aurten 16 urte egiten ditu. Orain dela bi urtera arte kide berak izan ditu taldeak. Fontak bere proiektuak sortzeko utzi zuen (Frenetik eta Itxura grabazio estudioa) eta haren ordean Jon Morcillo baxu-jole olaztiarra sartu zen taldean (Stupenda Jones ohia). Aldazaren arabera, “berehala moldatu zen”. Diskoa zuzenean defendatzen boskotea ariko da: Jhony (ahotsa), Xabi (bateria), Aguayiko (gitarra eta koroak), Aguayo (gitarra) eta Mortx (baxua eta koroak).

## Urbasa, objektibotik

Larunbatean, 16:30ean, Urbasako Bioitza kanpinean neguan Urbasan egindako argazkien proiektzioa egingen da

**A**ltsasuko Mendigoizaleak bigarrenbiz Urbasaz gozatuz ekimena antolatu du. Neguan, argazki makina eta ez galtzeko balio duten mapak, GPSak, iparrorratzak eta bestelakoak lagun, argazkiak egiteko gonbita egin zuen taldeak. Hainbat izan ziren izena eman zutenak baina, azkenik, 10 argazkilari izan dira argazkiak aurkeztu dituztenak. 60 guztira. Ekimena sendotzen ari dela azaldu digute antolatzaileek. Argazki emanaldiaren ondoren auzatea eta parte-hartzaile guztiendako txaloak izanen dira. Hitzorduak neguko argazkilaritzaz, argiaz, Urbasaz eta bestez hitz egiteko aitzakia emanen die biltzen direnei.

## Antzezlan bihurtutako greba

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

**T**arima Beltzak beste erkidegoetako antzerki taldeekin trukeak egiten hasi da. Horren fruitu da Castro Urdialesko Tela Marinera taldea Altsasun pasa den ostiralean aritu izana. Bihar Abadiñoko Banarte antzerki taldearen txanda izanen da, 2007tik antzokiz antzoki dabilena. Bizkaitarrek *Guernica 1913* antzez-lana jokatu du. Hainbat eta hainbatsari garrantzitsu jasoditu Rafa Arcek idatzitako obrak, tartean 2013ko antzerki garaikidearen Espainiako Sari Nagusia, eta Espainia ordezkatu zuen Canillejaseko amateur antzerki jaialdian.

Familia bat Eibarretik Gernikara doa bizitzera, lan egiteko, eta bertan lan greba bat dago. Langileak ideia oso kontserbatzaileak dituen fabrikako nagusiaren kon-



tra daude. Asociación de obreros pistoleros de Gernika-Lumo taldea osatuko dute eta grebara joko dute. Familia horrek albiste gogorrak jasoko ditu, haurdun geratzen den alabarena, tartean. Bestalde, apai-za langileengan eragina izaten saiatuko da, greba bukatzeko. “Azken bi urteetan behin eta berriz antzezlan hau antzeztan ari dira eta oso saritua da. Sekulako auke-

## Josefina Arregui Klinikako Lagunak

Emanaldiko sarreran jasotzen dendiruaren %10 Josefina Arregui Klinikaren Lagunak elkarte-ari emanen zaio.

ra da Altsasura ekarri izatea” azpimarratu zuen Tarima Beltzako Mertxe Herrerak.

## Non erabili

**ILAIA ILEAPAINDEGIA**  
**ETXARRI ARANATZ**  
Deskontu bereziak.

**T. IRIARTE**  
**IRURTZUN**  
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

**LOGURE**  
**ALTSASU**  
Bandalux 59,00€/m<sup>2</sup> (eskaintza berezietan izan ezik).

**ML MODA**  
**ALTSASU**  
100 €tik gorako erosketetan, 10€tako kontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

**NEREA ILEAPAINDEGIA**  
**LAKUNTZA**  
Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

**MARTXUETA**  
**IRURTZUN**  
%5eko kontua irakurketako liburuetan.

**REDIN LURRINDEGIA**  
**ETA KOSMETIKA**  
**ALTSASU**  
%5eko kontua osagarrietan.

**LIZARDI ESTETIKA**  
**ZENTROA**  
**ETXARRI ARANATZ**  
%5eko kontua depilazioetan.

**HOSTO GORRI**  
**ALTZARIAK**  
**ETXARRI ARANATZ**  
Dendako produktuetan %5eko kontua.

**ARGIRO OPTIKA**  
**ETXARRI ARANATZ**  
%15eko kontua graduatuetan eta %5 eguzkitakotan.

**ZELANDI KIROLDEGIA**  
**ALTSASU**  
Lehenengo matrikula doan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**



## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 65%	euria: 23%	euria: 13%	euria: 18%	euria: 13%	euria: 18%	euria: 18%
Min: 2 Max: 6	Min: 2 Max: 6	Min: 1 Max: 7	Min: 1 Max: 9	Min: 1 Max: 11	Min: 3 Max: 10	Min: 2 Max: 13

## : temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	14	1	79
Etxarri A.	13	-0.1	101
Altsasu	11.5	0	119
Aralar	3.3	-5.5	28
Urbasa	-	-	-

## : ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
15	23	31	7

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.  
 Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
 Aquarium: sarrera bat.  
 Lacturale: esneki lotea.  
 Artium museoa: 2 sarrera.  
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
 Magna Gurpea: 2 sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
 Aquarium: sarrera bat.  
 Lacturale: esneki lotea.  
 Artium museoa: 2 sarrera.  
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
 Magna Gurpea: 2 sarrera.

# >> 11 galdera

## Olaztiko Gazte Asanblada

Baltistanen aldeko elkartasun egunaz

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza



# papergintza:

## diseinua eta inprimatzea

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

**1.- Zein da elkartasun egunaren helburua?**  
 Baltistango emakumeek arazo handiak izaten dituzte haurdunaldian zehar. Hainbat arrazoi medio, asko hil egiten dira. Ekografo bat erosi dute eta berau erabiltzeko bi pertsona trebatu nahi dituzte. Elkartasun egunaren helburua prestakuntza horretarako behar den dirua lortzen laguntzea da.

**2.- Ekimena Emakumeen Nazioarteko Egunarekin lotu duzue?**  
 Udalak programazio berezia egin du Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, eta gure egitasmoa bertan sartu du. Ondo etorri zaigu. Dena den, egitasmoa ez dugu martxoaren 8arekin erabat lotu.

**3.- Nola otu zitzaizuen jaialdi hau egiteko ideia?**  
 Txaro Otxandorena olaztiarra Baltistanen izan zen bertako jendea laguntzen. Bueltatzerakoan, laguntza eskatu zien udalari zein gazte asanbladari. Guk baiezkoa eman genion, ideia ederra zelakoan. Horrela, elkartasun jaialdia antolatzea erabaki genuen, dirua biltzeko helburuarekin. Gaztetxearen borondatea nabarmentzekoa da, programazio guztia guk prestatu baitugu.

**4.- Nolako egitaraua prestatu duzue?**  
 Larunbat goizean Txaro Otxandorenak hitzaldia emango du gaztetxean. Horren ondoren, triki-poteoa egingo dugu. Ondoren bazkaldu, eta elkartasun bingoari egingo

diogu tartea. Egunari bukaera emateko bokatada eta kontzertuak eskainiko ditugu. Ea jendea animatzen den eta diru asko biltzen dugun.

**5.- Asteazkenean ere Txaro Otxandorenak hitzaldia eman zuen. Bihar emango duena desberdina izango da?**  
 Bai. Asteazkenean Baltistango bi emakumeek prestakuntza zergatik jasoko duten azaldu zuen bitartean, Gaztetxeko hitzaldian prestakuntza zertan datzan zehaztuko du.

**6.- Antzeko zerbait lehenago antolatutakoak zarete?**  
 Ez, lehen aldia da horrelako zerbait egiten dugula. Beraz, erronka polita da guretzat.

**7.- Prestaketa lanekin arazorik izan duzue?**  
 Ez. Gazteen partetik inplikazioa ezin hobea izan da, eta halakotan gauzak nekez iritetzen dira oker. Hortaz aparte, eskertzekoa da izan dugun laguntza. Txarok, esaterako, guretzako baliagarriak izan diren aholkuak emandizkigu. Era berean, Baltistan Fundazioak Txaro bertako kide da laguntza ere eskaini zigun. Dena den, zer ekintza egin eta gure erabaki dugu. Egitarau erakargarri bat lortu dugu, beraz, pozik egon gaitezke.

**8.- Jendea ekitaldietan parte hartzeraz animatuko da?**  
 Espero baietz. Horretarako ahalegina egiten ari gara. Gaztetxez gaztetxe joan gara, egingo dugun elkartasun egunaz berri ematera,

eta herrian kartelak jarri ditugu. Hortaz aparte, tabernetan itsulapikoak jarri ditugu, jendea ekarpenak egiten has dadin. Beraz, Olaztiko jendea jakinaren gainean dago, eta Sakanako jende askok ere badaki zer egingo dugun. Orain falta dena da erantzuna behar bezalakoa izatea.

**9.- Herritarrak, normalean, urruneko arazoekiko nahiko indiferenteak izaten dira. Horrelako jaialdiak dira, akaso, hori aldatzeko modu eraginkorra.**  
 Dudarik gabe. Gakoa informazioa eta istorioak modu erakargarrian ematean dago; espero dezagun jendea Baltistango arazoez kontzientziatuko dela.

**10.- Baltistan Fundazioak Baltistango Hushe bailararen garapena bultzatzeko lanean dihardu.**  
 Gogorra eta, modu berean, beharrezkoa den lana egiten dute. Baltistanen jendea egoera zailean bizi da, beraz, beharrezkoa da hara joan eta laguntza eskaintzeko pronto dagoen jendea egotea. Biharko jaialdiarekin beren jarduna babes-teko gure aletxo jarriko dugu.

**11.- Fundazio honekin elkarlanean segituko duzue?**  
 Aukera badago, eta laguntza behar badute, badakite gu prest gaudela edozertarako. Elkartasun jaialdia antolatzeko Gaztetxearen prestasuna guztizkoa izan da, eta ez dugu inolako arazorik etorkizunean horrelako zerbait errepikatzeko.